

HEZKUNTZA BERRIZTATZEKO LEHENTASUN ILDOAK



2007-2010

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

HEZKUNTZA BERRITATZEKO LEHENTASUN ILDOAK 2007-2010

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2008

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Nagusiaren katalogoan aurki daiteke:
<http://www.euskadi.net/ejgvbiblioteka>

Argitaraldia: 1.a, 2008ko otsaila

Ale-kopurua: 3.000 ale

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastián, 1 – 01010 Vitoria-Gasteiz

Internet: www.euskadi.net

Disenua: Canaldirecto • www.canal-directo.com

Fotokonposizioa: RGM, S.A.

Inprimaketa: RGM, S.A.

ISBN: 978-84-457-2681-5

Lege-gordailua: BI-436-08

AURKIBIDEA

AURKEZPENA	7
I. HEZKUNTZA-JARDUERAREN ESPARRU OROKORRA	9
1. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren zeregina	11
2. XXI. mendeko euskal hezkuntza-sistemaren balioak eta oinarrizko printzipioak	13
3. Diagnostikoa	14
3.1. Egindako txostenen eta ebaluazioen laburpena	14
3.2. Euskal hezkuntza-sistemako aldaketak	15
4. Ikastetxeak: nortasuna, ikastetxeko proiektuak eta berrikuntza	16
II. 2007-2010 ALDIRAKO EKIMEN-ARDATZAK	19
1. ardatza. Denentzako eskola	27
1.1. Hezkuntza-premia bereziak	29
1.2. Gizarte-eta kultura-aniztasuna	31
<i>Kultura artekotasunerako Hezkuntza programa</i>	32
1.3. Berdintasuna eta generoa	37
2. ardatza. Eskola hobea	41
2.1. Aitzindaritz- eta kudeaketa-prozesuak	43
<i>«Kalitatea Hezkuntzan» programa</i>	44
2.2. Elkarbizitza eta hezkuntza-komunitatea	50
<i>Elkarbizitzan, Bakean eta Giza Eskubideetan hezteko programa</i>	52
2.3. Ikaskuntzaren kalitatea: arrakasta guztientzat	58
<i>Ikas-Komunitateen programa</i>	59
3. ardatza. Eskola, XXI. mendeko gizartean	65
3.1. Curriculum berria eta oinarrizko gaitasunak	66
3.2. Teknologia berriak	68
<i>Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien programa</i>	70
3.3. Euskal Herriko eta Europako gizarte-esparrua	75
3.4. Hizkuntzak	78
<i>Hizkuntzen Trataera Bateratuaren programa</i>	80
3.5. Zientzia-hezkuntza	86
3.6. Garapen iraunkorra	88

AURKEZPENA

Beti gertatu izan den bezala, gu bizi garen gizartea etengabe aldatzen ari da. Iraganean ez zen hala gertatzen, baina orain asko azkartu da gizartearen aldaketa-erritmoa, eta, hori dela-eta, orain desberdintasunak ez dira sumatzen belaunaldi batetik bestera dagoen tartean, baizik eta hamarkada batetik bestera ere nabaritzen dira. Horretarako, nahikoa da gogoratzea orain ditugun gauza batzuk duela gutxi gure ikasleek irakurtzen zituzten zientzia-fikziozko liburuetan ageri zirela. Horretan guztian eragina izan du zientziaren aurrerapenak, oro har, eta jakintza aurreratuak, bereziki. Gainera, gure ikasgeletako eguneroko zereginaren parte dira biak.

Testuinguru horretan, oso zaila da ziurtasunak eskaintzea, baina, hala ere, hezkuntzaren zeregina ez da aldatu: ikasleei garatzen laguntzea maila pertsonalean, sozialean eta profesionalean (hiru maila bereizgarrietan), euskal gizartea gero eta aurreratuagoa, oparoagoa, zuzenagoa eta solidarioagoa izan dadin.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak egiteko hauek ditu, besteak beste: hezkuntzak XXI. mendearen hasieran izan behar duen zeregina berrestea, Europar Batasunak Lisboako Kontseiluan 2010. urterako ezarritako estrategiei jarraitzea eta Eusko Jaurlaritzak legegintzaldi honetarako ezarritako konpromisoak eta Parlamentuan jasotako aginduak betetzea.

Kalitatezko hezkuntza eskaintzea da horren guztiaren helburua; hau da, ikasleek eskolan arrakasta izatea, eta, horretarako, oinarrizko hezkuntzarako euskal curriculum berriaren arabera, heldu izatean aurretik aipatu ditugun hiru mailetako garapena lortzeko behar dituzten gaitasunak eta trebetasunak eskuratzen laguntzea. Hori da filosofia inklusiboaren zentzurik zabalena, gure ikasleek, gure ikasle guztiek, arrakasta-maila handiagoa izatea.

Argitalpen honetan jasota daude Hezkuntza Sailak 2010era arte proposatutako Hezkuntza Berriztatzeko Lehenetasun Ildoak. Alde batetik, hezkuntza-jarduera zer esparru orokorretan garatu behar den zehazten dute, eta, bestetik, denboraldi horretarako lehenetasun-ildoak zein diren azaltzen dute, bai eta ildo horien xedeak, helburuak, ekintzak eta ebaluazio-adierazleak ere, azpimarratu nahi ditugun hiru ardatzentzat.

Hezkuntza-zeregin guztiak du garrantzi bera eta gizarteari aurrera egiten laguntzen dio. Hala ere, egia da egoera aldakorrarekin lan egin behar izatearen eraginez, guretzat garrantzia duten programa-multzo eta jardueren-eremu batzuei eman behar izan diegula lehenetasuna, etorkizunari arrakastaz aurre egiteko.

Argitalpen hau ez da proposamen-multzo soilak, hori baino balio handiagoa du. Hainbat profesionalen egindako lanaren eta jarritako ilusioaren fruitua da. Gure hezkuntza-sistemak etorkizunean izango dituen erroak

erantzutea da, besteak beste, argitalpenaren helburua, eta, horretarako, Hezkuntza Berrizatzeko 2003-2006 denboraldiko programetan lortutako emaitzei egindako ebaluazioan oinarritu dira.

Euskal hezkuntza-komunitate osoak azken urteetan egin duen lanari esker, gure hezkuntza-sistemak oso kalitate-maila ona lortu du. Hain zuzen ere, hainbat forotan aitortu izan dute kalitate-maila hori. Baina argi dago asko dugula oraindik egiteko. Hurrengo urteetan, berrikuntzarekin lotutako balioak eta jarrerak sustatu beharko ditugu batez ere, antolaketa, talde-lana eta hezkuntza-komunitate osoaren parte-hartzea hobetuko duten funtzionamendu-dinamikak sortu beharko ditugu ikastetxeetan, komunikazioaren gizarteak eskaintzen dizkigun aukerei ahalik eta etekinik handiena ateratzeko.

Euskadik helburu hau jarri dio bere buruari: Berrikuntzan erreferentea izatea Europan 2030. urterako. Erronka hori ezartzea ezinezkoa izango zen gure hezkuntza-sistemak lagundu izan ez balio ezagutzen dugun eta sendotu nahi dugun ongizate-estatuaren garapenari. Baina erronka hori lortzea ezinezkoa izango da hezkuntza-sistemak ez badu konpromisorik hartzen guk guztiok gure ikasleen esku jartzeko gure alderdirik onenak, aldaberritze-, berrikuntza- eta eraberritze-prozesu batean.

Jakinaren gainean nago aipatu dizuedan kultura berritzaile horrek ikastetxeetan sortu eta garatu behar duela, eta, horretarako, ezinbestekoak direla prestakuntza, jarduerari buruzko hausnarketa, metodologia berriak probatzea eta irakaskuntza-ikaskuntza prozesua zehazteko modu berriak sartzea hezkuntza-jardueran. Horretarako, guztiz ezinbestekoa da hezkuntza-komunitatea osatzen dugun guztiok parte hartzea (irakasleek, gurasoek, gizarte-eragileek, erakundeek...), eta, horrela, arazo jakin batzuk azaltzen direnean konponbideak eta ordezkio ideiak sortzen elkarlanean arituko diren pertsona-taldeak oinarri izango dituzten eskola-elkarteak garatu ahal izatea.

2007-2010 denboraldirako aurkezten dizkizuedan Hezkuntza Berrizatzeko Lehentasun Ildoek oinarri eta gida izan behar dute elkarrekin egingo dugun lanerako. Bide berritzaile hori elkarrekin egitera gonbidatu nahi zaituztet; hain zuzen ere, bide horrek euskal gizartea eta euskal gizartea osatzen dugun pertsonak hobetzeko balio behar baitu.

Aurkezpen hau erabili nahi dut dokumentua egin duen profesional-taldeari egindako lana eskertzeko, eta, halaber, eskerrak eman nahi dizkiet nire proposamenak eta iradokizunak hainbesteko patxadaz eta zuhurtasunez jaso dituztelako. Bestalde, eskerrak ematen dizkiet irakaskuntzako eta zerbitzuetako langileei, egunero egiten duten lanarengatik; izan ere, haien trebezia eta bokazioari esker, proposamen hauek garatu, osatu eta zuzenduko baitituzte, gure ikasleek arrakasta lortzeko helburuarekin. Eskerrik beroenak, guztioi, nire partez.

Tontxu Campos Granados
Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburua

HEZKUNTZA-JARDUERAREN ESPARRU OROKORRA



1. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren zeregina

Euskal hezkuntza-sistemak urrats handiak egin ditu azken urte hauetan, kalitatezko hezkuntza lortzeko ikasle guztientzat. Hala ere, aurrera egin ahala, sistema hobetzeko beharrak agertzen dira, eta erronka berriak sortzen zaizkie sistema hori osatzen duten pertsona guztiei.

Argi dago kalitatezko hezkuntzak erantzunak eman behar dizkiela etengabe aldatzen ari den gizartearen eskaerei, eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren zeregina da aldaketa-prozesu horretara egokitzeko aitzindari izatea. Zehatz-mehatz, hau da Sailaren zeregina:



a) *Pertsona guztiek kalitatezko hezkuntza izateko eskubidea bermatzea.* Gaur egungo euskal gizartean honek hau esan nahi du:

- Bitarteko guztiak jartzea pertsona guztiek aukera berak izan ditzaten eskolan emaitza onak izateko, sexuak, urritasunak, egoera ekonomiko-sozialak, kulturak, hizkuntzak eta jatorrizko etniak inolako mugarik jarri gabe.
- Gizarte demokratiko batean pertsona gisa eta herritar gisa garatzeko eta lan-munduan aktiboki sartzeko pertsona guztiek behar dituzten oinarrizko gaitasunak lortuko dituztela bermatzea.
- Ikasle guztien ikaskuntza eta partaidetza sustatzea, batez ere hezkuntza- eta gizarte-bazterketa jasateko arriskuan dauden ikasleena. Horretarako, eskola-ingurunean sartzeko zailtasunak eta oztopoak identifikatzea eta kentzea.
- Eskolako hezkuntza amaitu ondoren, pertsona bakoitzak aukeratzen duen norabidean bizi osoan zehar ikasten jarraitzeko aukerak ematea: kulturala, akademikoa, profesionala...
- Bitartekoak jartzea, pertsona guztiek lortzeko bizi-proiektu pertsonala garatu ahal izateko beharrezko dituzten gaitasunak.

- b) *Hezkuntza-eremutik proiektu kolektibo bat eraikitzen eta finkatzen laguntzea*. Besteak beste, ezaugarri hauek eduki behar ditu proiektuak:
- Kultura anitzeko eta askotariko elkarrizketaren bitartez sortutako Euskal Autonomia Erkidegoko herritar guztien kultura-oinarria transmititzea eta eraikitzea, eta, horrela, elkar ulertzeko eta kohesio soziala lortzeko aukera izatea, arreta berezia jarriz euskarari eta Euskal Herriko kide garela erakusten duten osagai sinbolikoei.
 - Hurrengo belaunaldiei beharrezko gaitasunak ematea, euskal gizartea jakintzaren gizartearen parte izan dadin.
 - Euskal gizartea oinarri hauen gainean finkatzea: balio demokratikoak, giza eskubideen errespetua, lankidetzeta, elkartasuna, iraunkortasuna eta bakea, eta desberdintasunak, diskriminazioa, gizarte-bazterketa eta gizabanakoen askatasunaren mugak gainditzea.
- c) *Hezkuntza-sistemak behar dituen aldaketa-prozesuen aitzindari izatea*, eskaera berriei (banakako eta taldeko eskaerei) erantzuteko. Horretarako, ezinbestekoa da:
- Gizarteak hezkuntza-sistemari egiten dizkion eskaeren berri izatea, nortasun pertsonala eta herritarraren izaera sendotzeko behar diren gaitasunak ezagutzea, gertuko testuinguruen erreferentziak dituela kokatzeko mundu globalizatuan eta etengabe aldatzen ari den ekoizpen-ingurunean integratzeko.
 - Hezkuntzari eta eskola-ereduari buruzko diskurtso komuna taldean eraikitzea, eta, gizarteko sektore guztien partaidetzarekin, epe ertainerako eta luzerako plan estrategiko bat proposatzea. Gure hezkuntza-sistemaren helburuak definituko dira plan horretan, bai eta helburuak lortzeko jardueraildoak ere.
 - Hezkuntza-komunitate guztia dinamizatzea, eragile guztiek hezkuntza-proiektu kolektibo horren garapenean esku har dezaten, bakoitzak bere aldetik eta elkarren artean koordinatuta.
 - Hezkuntza-sistema gizarte-komunitatera irekitzea, komunitatearen garapenaren oinarritzko alderdia izan dadin, eta gizartearen helburu eta proiektuek toki garrantzitsua izan dezaten hezkuntza-sisteman.
- d) *Euskal hezkuntza-sistema kudeatzea*. Sistema konplexua da, eta, hori dela-eta, urrats hauek egin behar dira:
- Euskal Autonomia Erkidegoko sare guztietako hezkuntza-baliabide guztiak antolatzea eta koordinatzea, sare bakoitzaren ezaugarriak errespetatuz, baldin eta ezarritako betebeharrak betetzen badituzte, batez ere zerbitzu publikoa kudeatzen dutenei eska dakizkiekeen betebeharrak.

- Euskal eskola publikoaren sareak hezkuntza-sistema publikoan toki nagusia duela onartzea.
- Hezkuntza-sistemak dituen giza baliabideak, baliabide materialak eta ekonomikoak optimizatzea, helburuak lortzeko.
- Barne- eta kanpo-loturak sortzea, batez ere gizarte-ongizateko, osasungintzako, kulturako eta enpleguko sareekin, sinergia berriak sortzeko haien artean, ekintza partikularrak sendotzeko.

2. XXI. mendeko euskal hezkuntza-sistemaren balioak eta oinarrizko printzipioak

Euskal hezkuntza-sistemak eta sistema hobetzeko proposamen guztiek euskal gizarteak onartutako balio demokratikoak errespetatuko dituzten printzipioak izan behar dituzte oinarrian.

Errealitateak konplexuak direnean —hau da, errealitateak gizarteari eta gizartea osatzen duten gizabakoei eragiten dienean—, badirudi kontraesanean daudela zaindu behar diren balioak, eta, hortaz, balio horietako batzuk bertan behera uzteko arriskua dago, balio horien kalterako. Oreka-puntua aurkitu behar da balio guztiak errespetatzeko, hasierako desorekak kontuan hartuta jarduerak garatu behar ditugunean.

13 «

Europar Batasuneko ikerketen arabera, balio hauek hartu behar dira aintzat hezkuntza-sisteman:

- Emaitzak lortzeko *eraginkortasuna*, dauden baliabideekin.
- *Ekitatea* prozesuetan, elkarren artean desberdinak direnek edo egoera desberdinetan daudenek aukera berak izango dituztela bermatzeko.
- Pertsona bakoitzak bere banakako proiektua garatzeko *askatasuna*.
- *Kohesio soziala*, proiektu kolektiboa eta kultura komuna oinarri hartuta.

Balio horiek errespetatzeko eta sustatzeko, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak printzipio hauetan oinarritutako hezkuntza-sistema aukeratu du. Printzipio horien bitartez ordenatzen dira irakaskuntzak eta irakaskuntza-jarduera orientatzen da:

- a) *Aniztasuna barneratzea* (pertsonena, aukerena, kulturena...). Denen kultura kontuan hartu eta eskola-komunitate segurua, eroso, laguntzailea eta sustagarria sortzen da horrela. Pertsona guztiak hartzen dira ikasle guztiek lorpen-maila handiagoak izan ditzaten ezinbesteko oinarritzat.

Ikasle bakoitzaren hezkuntza-premiaren *arreta*, familia- eta gizarte-testuingurua kontuan hartuta, eta haren usteak eta kultura errespetatuta.

b) Hezkuntza-komunitatearen *partaidetza* helburuak eta jarduera-ildoak definitzen, bai eta prozesuak eta emaitzak balioesten ere.

Banakako ardura funtzioak eta zereginak gauzatzeko.

c) Hezkuntzako eragileen *autonomia*, funtzioak gauzatzeko.

Koordinazioa, denen artean adostutako irizpide batzuk abiapuntu hartuta, eta une jakin batean edo denboran zehar talde berarentzat egiten diren jardueri koherentzia emango dien funtzionatzeko modua.

3. Diagnostikoa

3.1. Egingako txostenen eta ebaluazioen laburpena

» 14

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak urteak daramatza hezkuntza berriztatzeko hainbat programa ezartzen hezkuntza-sisteman, eta lortutako ezarpen-maila aztertzen aritu da. Nabarmendu behar dugu programa horietako asko ikastetxearen heziketa-proiektuaren parte direla orain ikastetxerik gehienetan. Programa hauek azpimarratu behar ditugu, besteak beste: hezkuntza-premia berezien programa, hizkuntza-normalkuntzarena, Eskolako Agenda 21, ingelesa... Beste batzuk, berriz, ezarpen-prozesuan daude, baina zenbait premia dituzte oraindik; besteak beste, baliabide materialak eta hornidura, irakasleen prestakuntza, baliabide pertsonalak...

Premiak zehazteko, gurasoen, irakasleen, ikastetxeetako zuzendarien, elkarteen... informazioa jaso da. Halaber, Berritzeguneen ebaluazioa egin zen 2006an, ikastetxeen zuzendarien eta irakasleen laguntzarekin. Laguntza-zerbitzu horri buruz erabiltzaileek zer ikuspegi zuten jakin zen, eta hezkuntza-sisteman zer premia ikusten zituzten galdetu zitzairen.

Informazio guztia jaso ondoren, eskaerarik handiena eremu hauetan dagoela ikusi zen:

- Immigrazioa eta kultura artekotasuna.
- Hizkuntzen trataera bateratua eta hizkuntza-normalkuntza.
- Ikasgelako gatazken konponketa eta elkarbizitza lantzea.

- Informazioaren teknologiak.
- Irakasleei prestakuntza ematea curriculum berriari eta oinarritzko gaitasunei buruz.

Irakasleei prestakuntza eman behar zaiela ikusten da, oro har, baina ikastetxeetan eman behar zaiela prestakuntza, klastroak esku hartu behar duela, eta prestakuntza praktikoa izan behar duela.

3.2. Euskal hezkuntza-sistemako aldaketak

Eraginkortasuna handitzeko sistemetan sartzen diren aldaketa eta jarduera planifikatu guztiei esaten zaie berrikuntza. Berrikuntza ez dator bat berez gertatzen denarekin, ohitura bihurtu diren gauzekin eta sistemak bere gain hartutako eta sisteman integratutako gauzekin. Garatu beharreko berrikuntza-estrategiak ekintza-plan batean zehazten dira, eta ekintza-plan hori aurrera eramaten da lortu nahi den aldaketa lortzeko.

Eskoletan, berrikuntzek alderdi garrantzitsuagoetan edo hainbesteko garrantzirik ez duten alderdietan izan dezakete eragina, eta, horri lotuta, ikaskuntzako materialetan, ekintzetan, jardueretan eta jokabideetan ere badute eragina, eta, azkenik, baita garrantzi handieneko alderdietan ere; hau da, errealitatearen ulermenerekin eta sinesmenekin lotutako alderdietan.

Balioak, gizarte-egiturak eta, haiekin batera, eskolaren eskaerak aldatzen direnean eta irakaskuntzari eta ikaskuntzari buruzko ikerketek aurrera egiten dutenean, eskolaren funtzioarekin eta eskolako egiturekin dagoen oreka apurtzen da. Euskal hezkuntza-sistemaren ikuspegitik, aldaketa-prozesuak hezkuntza-sistemako *kultura-oinarriak* eta *egiturak* aztertzea eta eguneratzea eskatzen du. Horretarako, berrikuntzak:

- Bat egin behar du ezinbestean euskal hezkuntza-sistemaren helburuekin eta oinarritzko printzipioekin, eta koherentea izan behar du euskal gizarteak oinarritzat hartu nahi dituen balioekin.
- Eskolako hezkuntza-jarduera antolatzeko eta gauatzeko hiru mailetan izan behar du eragina: ikasgelan eta irakasleengan, ikastetxean eta zuzendaritzan (aitzindaritzan, antolaketa, hobekuntza-planak, partaidetza...) eta hezkuntza-administrazioan. Helburuak zehaztu eta dauden mota guztietako baliabideak eraginkortasunez kudeatu behar dira.
- Aurretik egondako esperientzia onak abiapuntu hartuta egin behar dira, zer eskaera berriri erantzun nahi zaien kontuan hartuta, eta berrikuntzak sartzeko egin beharreko aldaketa-prozesuak egokituta.

4. Ikastetxeak: nortasuna, ikastetxeko proiektuak eta berrikuntza

Ikastetxeak arduratzen dira aldaketa- eta hobekuntza-prozesuak burutzeaz, ikasle jakin batzuen baldintza eta beharren arabera, eta testuinguru zehatz batean. Horretarako, hezkuntza-komunitate osoaren laguntza dute, eta, bereziki, irakasleen parte-hartzea.

Aldaketa-prozesuak funtsezko bi tresnatan oinarritzen dira: berrikuntzan eta ebaluazioan. Bi tresna horiek irakasleen prestakuntzarekin eta talde-lanarekin osatzen dira. Hezkuntza-berrikuntza elementu eragilea eta eraldatzailea da, eta desiragarritzat hartzen diren gaien aldeko apustua egiten du. Zaharkituta gelditutakoa gainditzen du, merezitako garrantzia ematen dio baliotsua dela frogatutako guztiari, eta elementu berriak txertatzen ditu hezkuntza-jardueran. Ebaluazioaren bitartez, funtzionala ez dena baztertu daiteke, gaur egun funtzionaltzat jotzen diren helburuak lortzeko, eta antzeman daiteke zein dire arreta berezia edo bide-aldaketa behar duten alderdiak.

Azkenik, ekiteko moduan adierazten dira aldaketak, elkarte batean banaka nahiz taldean egiten den horretan. Taldeko jokabideak aldatu nahi dituen ikastetxeak prestatuta egon behar du eztabaidatzeko zerk zehaztu duen indarrean dagoen taldeko jokabidea. Eztabaida sakonak azaleratu behar dira hezkuntza-errealitatearen ulermenari buruz, egoera berrirako beharrezko trebetasunen jabetzari buruz eta neketsutzat hartzen den zerbait aldatzeko borondateari buruz.

Aldaketa esanguratsuek pentsatzeko eta ekiteko modu berriak —hots, jardunbide berriak— dakartzate.

Aldaketa-prozesuetan, funtsezko hiru fase bereizten dira: hasiera, inplementazioa eta instituzionalizazioa. Lehen fasean hartzen da beharraren kontzientzia eta parte hartzeko erabakia, eta sortzen dira motibazioa eta jarrera positiboak. Halaber, berrikuntza benetako beharra dela baloratzen da. Arrakasta izateko, funtsezkoa da inplementazio-fasearen plangintza arduratsua eta zehatza egitea. Fase horretan, beharrezkoak dira babes eta dagozkion ikasketak. Instituzionalizazioa gertatzen da ikastetxeen ekintza-arau egonkor bihurtzen denean.

Hezkuntza-aldaketen balioa ez da automatikoa. Horregatik, komeni da berrikuntzak arreta handiz aztertzea, ondorengo irizpideen arabera:

1. Aldaketa baliotsua da eragingo dion komunitatearentzat.
2. Inplementazio-prozesua bideragarri egiten duen diseinu egokia du.
3. Ez dago beste aldaketarik, sustatutakoa baino premiazkoagoa eta beharrezkoagoa denik.

Hezkuntza-komunitatearen behar eta aukeren arabera, bai eta dauden eta lortu daitezkeen baliabideen arabera, ikastetxe bakoitzak beharrezko erabakiak hartuko ditu —bere hezkuntza-proiektuan oinarrituta— hobekuntza-plana egiteko. Plan horretan koordinatu eta sartuko dira egindako berrikuntza guztiak, eta bateratu eta txertatu egingo dira, planak irakasle guztiengan eragina izan dezan. Ikastetxeek denboraren

eta baliabideen zati handi bat eman behar dute ohitura funtzionalei eusteko, bai eta hezkuntzaren xedea lortzeko baliotsuak diren ohiturei eusteko ere. Energiak mugatuak direnez, denboraren eta baliabideen zati txikiagoa eman beharko dute berrikuntzaren bat praktikan jartzeko. Beharrezkoa da berrikuntzak lehenes-
tea eta benetako aukeretara egokitzea. Ezin zaio guztiari batera heldu; prozesuei denbora ematea komeni da. Berrikuntzek irauteko bokazioa dute, eta, horregatik, finkatu, eta ohitura funtzional bihurtu behar dute.



2007-2010 ALDIRAKO EKIMEN-ARDATZAK





Euskal hezkuntza-sistemak lortu nahi duen irakaskuntzak ikasle guztiez arduratu nahi du, bizi-proiektu autonomo eta solidarioa garatzeko gai izan daitezen, herritar izaerarekin koherentzian, eta, horrez gain, gizartearen eskaerei erantzun nahi die. Gizarte horrek gero eta aldaketa azkarragoak, ugariagoak, sakonagoak, konplexuagoak eta zalantzagariagoak izaten ditu.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari dagokio helburuak definitzea eta ikastetxeen eta irakasleen jarduera orientatzeko esparru orokorra ezartzea ere, helburuak lortu ahal izateko. Hala egin izan du aurreko urteetan Hezkuntza Berritzatzeko Programen bitartez. Programa haietan ezartzen ziren hezkuntza-prozesuak hobetzeko lehentasun-ildoak, ikuspegi berriak sartzeko joateko irakaskuntza-jarduerara, gaur egungo hezkuntza-ikuspuntuetara iristen laguntzeko, eredu didaktiko berriak eta tresna berriak emanez —batez ere informazioaren eta komunikazioaren teknologiek eskaintzen dituztenak—, bai eta eskolan agertzen doazen eskaeren hezkuntza-lanketarekin lotuak ere.

Hezkuntza Berritzatzeko Lehentasun Ildoetan (2007-2010), aurreko urteetan abian jarritako ildoekin jarraitu eta sakondu nahi da, eta, horrez gain, aurrera egin nahi da Europar Batasunak 2010erako proposatutako Lisboako Helburuen bidez irekitako bidean, bai eta Europako gobernuek 2015erako finkatutako Milurteko honetarako Garapen Helburuen bidez zabalduko bidean ere. Horrez gain, lehentasun-ildoak zabaldu eta aberastu egin dira ekarpen hauekin: Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako Legea, Miñako eztabaida-foroetan hezkuntza-komunitateak egindako proposamenak, Lehendakaritzaren Bake Plana, «Giza Eskubideetan eta Bakean Oinarritutako Hezkuntzaren Alorreko Euskal Ekintza Plana», bai eta gizarte osorako eta euskal hezkuntza-sistemarako egoera berria eta erronka garrantzitsuak sortzen dituzten beste zenbait gertaera soziopolitiko ere.

Halaber, euskal curriculum berria ezartzen lagundu nahi du, ikasleek pertsona gisa eta gizarteko kide kritiko eta parte-hartzaile gisa garatzeko behar dituzten gaitasunak eskura ditzaten. Ikuspegi horretatik, curriculumeko edukiek (gaitasunen bidez adierazita daude) beste esanahi bat hartzen dute, ikaskuntzaren eremua gaintzen dute, eta tresna erabilgarri bihurtzen dira pertsonak izateko, elkarrekin bizitzeko, bakoi-tzak bere kontura beste zenbait ikaskuntza lortzeko eta bizitzako eremu guztietan eragina izateko. Gainera, aldatu egiten da irakasleen zeregina; izan ere, metodologia berrien bitartez, ikasleek lan aktiboa egin eta lagundu egiten dute ikaskuntzan.

Ikastetxeek gauzatu behar dituzte aldaketa- eta hobekuntza-prozesuak, testuinguru zehatz bateko ikasle jakin batzuen egoera eta premiak kontuan hartuta, eta hezkuntza-komunitate guztiak lagunduta, bereziki irakasleek esku hartuta. Oinarrizko bi tresna dituzte prozesu horiek: berrikuntza eta ebaluazioa, eta tresna horiek osatu egiten dira irakasleen prestakuntzarekin eta talde-lanarekin. Hezkuntza-berriztapena eragilea eta eraldatzailea da, eta lortu nahi dena lortzeko urratsak finkatzen ditu, zaharkituta geratzen dena gaindituz, beharrezko garrantzia emanez balio duenari eta osagai berriak sartuz hezkuntza-jarduerara. Ebaluazioaren bitartez bereizten da zerk balio duen eta zerk ez, bai eta zer alderdik behar duten arreta handiagoa edo norabide-aldaketa ere. Bi prozesu horiek lotura estua dute, eta elkarri laguntzen diote.

Premisa horietatik abiatuta, Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzak esparru orokor bat proposatu du 2007-2010 hirurtekorako. Esparru orokorrak Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren hezkuntza-politika definitzen duten hiru printzipioak jasotzen ditu:

- *Inklusibotasuna*, pertsona guztiei aurrera egiten laguntzeko, desberdintasun-egoerak gaindituz eta behar bezala erantzunez ikasle guztiei, gizabanakoen aniztasuna eta kultura-aniztasuna kontuan hartuta.
- *Kalitatea*, ikasteko sustagarri asko izango dituzten eskola-testuinguruak, dinamikoak eta etengabeko hobekuntzako proiektuak izango dituztenak.
- *Etorkizunaren ikuspegia*, ikasleak prestatzeko, ahalik eta bermerik gehienekin egin diezaien aurre bizi-proiektuari.

» 22

Hiru horiek dira ardatzak. Ardatz bakoitzean definitzen dira *lehentasuna duten jarduera-ildoak*, ardatz bakoitzaren barruan sartzen dira gauzatuko diren *programak* eta *ekintzak*, bai eta *ebaluaziorako adierazleak* ere, plana indarrean egongo den garaia amaitzean zer aurrerapen eta zer gabezia egon diren jakinaraziko baitute. Ikastetxeetarako sortutako proposamenak dira programak, eta ikastetxeek hezkuntza-zereginen sartu beharko dituzte. Ekintzak, berriz, Hezkuntza Sailaren eta haren zerbitzuen konpromisoak dira, eta proposatutako ildoetan aurrera egiten lagunduko diete ikastetxeei.

1. ARDATZA: Denentzako eskola

Eskola inklusiboari buruzko hausnarketarekin jarraitu nahi da, azken urteetako esperientziak erabiliz, eta jarduera berriak garatu nahi dira, ikasle guztiek berdintasunean lor ditzaten hezkuntza- eta ikaskuntza-helburuak, ikasleen jatorria kontuan hartu gabe. Egoera txarrean diren ikasleei laguntzeko aurreko programetan abian jarritako saiakerak alde batera utzi gabe, lehentasunezko hiru ildo hauek proposatzen dira hurrengo hirurtekorako:

- *Hezkuntza-premia berezien* arreta. Saiakera handia eta ibilbide luzea egin da ildo horretan, baina aztertzeko eta eguneratzeko premia dago, eta eskolan eta komunitatean ahalik eta ondoen egokitu behar dira.

- *Gizarte- eta kultura-aniztasuna*, gero eta agerikoagoa baita etorkin ugari iristen ari direlako gure erkidegora. Erronka handia da eskolarako, kultura arteko hezkuntzaren ikuspegitik, gure gizartean sartzeko aukera eman behar baitaie ikasle horiei, eskubide osoko herritar gisa, bere kultura-nortasuna garatzeko eskubideari kalterik egin gabe.
- *Berdintasuna eta generoa* ildoan, orain arte egindakoa aztertu behar da, eta sexuen arteko berdintasuna lortzeko hezkuntzan aurrera egin behar da, arreta berezia jarriz genero-indarkeriako motei.

Ardatz honen barruan sartuta dago «Kultura arteko Hezkuntza» programa.

2. ARDATZA: Eskola hobea

Irakaskuntzako eta ikaskuntzako testuinguru berriak sortzeko aukera da berrikuntza, eta, hori dela-eta, kalitate-irizpidea da. Hortaz, hobetzeko helburu nagusia ere bada. Zehazki, lehentasunezko ildo hauek proposatzen dira:

- *Aitzindaritza- eta kudeaketa-prozesuak*. Ikastetxeetako zuzendaritzek funtsezko zeregina dute prozesu horietan. Ikastetxeetako kudeaketen kalitatea sendotzeko aukera ematen dute, irakaskuntzaren kalitaterako alderdi erabakigarriak baitira.
- *Elkarbizitza eta hezkuntza-komunitateak* kezka sortzen dute, eta ez irakaskuntza- eta ikaskuntza-prozesuak eraginkortasunez garatzeko baldintza direlako soilik, baizik eta eskolak oinarritzko ikaskuntza horretan lagundu behar duelako, oinarri teorikoak emanez eta pertsonen eta taldeen arteko harreman zintzoak eta onak bultzatuz.
- *Ikaskuntzaren kalitatea: arrakasta guztientzat*. Ildo horrek eskolaren zereginari buruz hausnartzen du, eta ikastetxeak aldatzea lortu nahi du, hainbat inguruetako (eskolako, familiako, auzoko...) ikaskuntza bultzatuz, eta ingurune horietan elkarrekintzak sor daitezen lagunduz eta elkarrekintza horiek baliatuz, ikaskuntzaren mesedetan.

Atal honen barruan sartuta daude «Kalitatea Kezkuntzan», «Elkarbizitzan, Bakean eta Giza Eskubideetan hezteko» eta «Ikas-Komunitateen» programak.

3. ARDATZA: Eskola, XXI. mendeko gizartean

Eskola-curriculum berria bat dator European onartu diren pedagogia-joera berriekin. Eskola hobetzeko ez da ezinbestekoa agindutako curriculum-diseinua eraginkortasunez eta zintzoki ezartzea, baizik eta garrantzi handiagoa du konpromiso batera iristeak zer irakatsi nahi den, zertarako eta ikasleek hori ikasteko modurik onena zein den hausnartzean.

Ikastetxe bakoitzean irakasleek erabaki behar dute zer irakatsiko dien haurrei eta gazteei heldu izatean arrakasta izan dezaten beharko dituzten jakintzaren elementuak eta oinarrizko gaitasunak eskuratzeko. Eta irakasgaien berriazko edukiak irakasteak baino garrantzi handiagoa du zeharkako jakintzak irakasteak, gaur egungo mundua ulertu eta aldatu ahal izateko. Ardatz honen bitartez, norabide horretan egin nahi dira ekintzak, etorkizuna kontuan hartuko duen hezkuntza-jardueran funtsezkotzat hartzen diren osagaiak azpimarratuz. Lehentasunezko ildo hauek proposatzen dira:

- *Curriculum berria eta oinarrizko gaitasunak* gaitasunetan sailkatutako hezkuntza-kontzeptu berria eta ikaskuntzen ebaluazio diagnostikoak (irakaskuntza-prozesuen eraginkortasuna balioesteko tresnak) zabaltzeko, haietaz hausnartzeko eta jabetzeko berriazko jarduera-ildoak.
- *Teknologia berriak* hezkuntza-komunitateko kide guztien artean komunikazio-bide berriak ezartzeko funtsezko motorra dira, ideien, helburuen eta interesen trukea egiteko. Gainera, horrela, aberatsagoak dira elkarrizketa eta lankidetzak, informazioa eskuratzeko gaitasuna garatzen da eta informazioa nola erabili jakiten da, ezagutza sortzeko.
- *Euskal Herriko eta Europako gizarte-esparrua*, bakoitzaren gizarte-ingurunea abiapuntu hartuta ezagutza (kultura) ekoizteko eta sortzeko gaitasuna sustatuko duen hezkuntzaren ikuspegitik abiatuta. Bakoitzak bere gizarte-nortasunari eustea eta aniztasunaren eta kultura artekotasunaren esparruan garatzea lortu nahi da, oinarri historiko eta kultural komunetan ezagutzen trukea egon dadila sustatuz.
- *Hizkuntzak*. Oinarrizko komunikazio-tresnak dira, eta haien bitartez sortzen da ezagutza. Hain zuzen ere, hizkuntzak dira ezagutzaren oinarriak eta askotariko elkarbizitza-sistema baten funtsezko zatia. Sistema horretan, hizkuntzak elkarren mende daude.
- *Zientzia-hezkuntza*. Eguneroko bizitza arduraz ulertzeko eta gobernatzeko aukera emango digun kultura zientifikoa garatzen laguntzeko eta arazoei konponbidea bilatzen aktiboki parte hartzeko; izan ere, zientziak eta teknikak den bezala erakusten dute gizartea, eta, horrez gain, gizartearen etorkizunaren funtsezko osagaiak dira.
- *Garapen iraunkorra*, natura eta gizakien erritmoak gehiago errespetatuko dituen garapen-eredu iraunkorrari buruzko hausnarketa eta lana egiteko.

Ardatz honen barruan sartuta daude «Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien» eta «Hizkuntzen Trataera Bateratuaren» programak.

Hezkuntza Berriztatze Zuzendaritzak proposatutako jarduera-ildoak bultzatzen erabiliko ditu bereziki baliabide materialak eta giza baliabideak, eta laguntza-zerbitzuak jarriko ditu ikastetxeen esku, ikastetxeei garatzen lagunduko dieten eragile nagusiak baitira.

Hala eta guztiz ere, jakinaren gainean dago ikastetxean bertan eta ikastetxearen kultura berriztailetik sortzen direnean bakarrik izaten direla aldaketak eskolaren parte, eta orduan bakarrik bihurtzen direla hobekuntza. Horretarako, ezinbestekoa da irakasleek jardueri buruz hausnarketa egin dezatela eta ordezkotako proposamen didaktikoak bila ditzatela. Ordezko proposamen didaktikoak probatu ostean eta proposatutako helburuak lortzeko bideragarriak eta eraginkorrek direla egiaztatu ondoren, ikastetxearen jarduera izatera pasako dira. Hezkuntza-erronka berriei aurre egiteko gaitasuna lortzeko eta erronkek sortzen dituzten arazoak konpontzeko, hezkuntza berriztatze prozesuekin lotura duen prestakuntza eman behar zaie irakasleei eta eguneratu egin behar dira irakasleak.

Halaber, funtsezkoa da hezkuntza-komunitate guztiak parte hartzea, batez ere gurasoek, haurren eta gazteen hezkuntza integralaren protagonistak baitira. Gainera, familiekin lankidetzaren bide berriak sortzeko premia dago.

Azkenik, kontuan hartu behar da sarean lan egiteak zenbat balio duen, ezagutza eraikitzen denek parte hartuko dutela bermatzen baitu. Bestalde, informazioaren eta komunikazioaren teknologien erabilera toki nabarmena izan behar du ezagutzaren eraikuntzan.

Hezkuntza Berriztatze Zuzendaritzak euskal hezkuntza-sistemako elementu guztien ekintzaren koordinazioa sustatu nahi du, argi baitu elementu guztien ekintza bateratu eta itxaropentsuari esker soilik lortuko dugula denok nahi dugun kalitate hobegoko hezkuntza.

»» 1. ARDATZA

DENENTZAKO ESKOLA

2003-2006 denboraldiko Hezkuntza Berritzatzeko Programen ildoari jarraituz, 2007-2010 hirurtekorako hezkuntza-jardueraren lehenengo ardatzean *eskola inklusiboa* aipatzen da. Ekitatearen eta kohesio sozialaren ikuspegitik orientatzen du hezkuntza-politika. Ikuspegi horrek aniztasuna errespetatzen du, eta desberdintasunak gainditzearen alde egiten du. Hezkuntza-komunitate guztia da ikuspegi horren aldekoa; izan ere, ez dio inolako kalterik egiten ikaskuntzak eraginkortasun osoz eskuratzeari, ez eta pertsona bakoitzak bere bizi-proiektua garatzeko duen askatasunari ere.

Eskola inklusiboan, ikasle guztiek dute kalitatezko hezkuntza izateko eskubidea, ezaugarri pertsonalak, generoa, gizarte- eta kultura-jatorria... kontuan hartu gabe. Eskola baztertzailleetan ez bezala, eskola inklusiboetan denen ikaskuntzarako aberastasuntzat hartzen da aniztasuna.

27 ««

Etengabeko hobekuntza-prozesua da hezkuntza inklusiboa, aniztasunari erantzuteko modu onenak aurkitzeko bilaketa iraunkorra. Hezkuntzan barneratzeke, ikasteko eta hezkuntza-sisteman parte hartzeke oztupoak identifikatu behar dira, alde batetik, eta estrategia, kultura eta jarduera parte-hartzaileen eta laguntzaileen alde egin behar dute, bestetik, bai ikasleek, familiek eta profesionalak, bai gizarte-komunitateak ere, oro har.

Hauetara 1. ardatzaren barruan lehentasuna duten jarduera-ildoak:

- 1.1. Hezkuntza-premia bereziak.
- 1.2. Gizarte- eta kultura-aniztasuna.
- 1.3. Berdintasuna eta generoa.

Oso egoera desberdinak lantzen dira ildo horietan. Lehenengo ildoan, ikasleen hezkuntza-premia bereziei erantzuteke ikastetxeek dituzten indarguneak eta ahulguneak bilatzen dira, eskola inklusiboaren esparruan, eta aurrera egiten da erantzuna hobetzeko. Ildo honen barruan, urritasunen bat duten ikasleei emandako erantzuna aztertzea proposatzen da bereziki, eta helburu berriak jartzea proposatzen da.

Bigarren ildoan, ikasle etorri berriak ikastetxean sartzeko eskolan gertatzen den aldaketa lantzen da, eta arreta berezia jartzen zaio kultura-aniztasunari. Proposatzen diren gaiak berriak direnez, *Kultura arteko Hezkuntzaren Programa* proposatzea gomendatzen dugu, funtsezko erreferentzia-elementu gisa; izan ere, pentsamoldea aldatzea, beste kulturak errespetuz eta jarrera irekiz onartzea eta besteen balioak integratze-ko gaitasuna izatea eskatzen baitu.

Hirugarren ildoan, berriz, balio nagusien azterketa eta kritika egiten jarraitzea lortu nahi da. Zehazki, zalan-tzan jarri nahi da emakumeen estereotipoarekin lotutako gaitasunak, balioak eta jarrerak gutxiesten dituen gizarte-eredua eta sistema hori legitimotzat hartzeko eskolak duen zeregina, eta, horrez gain, bizitzarako gaitasun eta trebetasun guztiak ikasle guztiek gara ditzatela sustatu nahi da, arduraz erabil ditzatela eremu publikoak eta pribatuak, eta harremana izan dezatela, autonomia pertsonala abiapuntu hartuta.

1.1. HEZKUNTZA-PREMIA BEREZIAK

Eskola inklusiboaren helburua da hezkuntza-komunitate eroso, laguntzailea eta sustagarria sortzea, eta pertsona guztiak seguru senti daitezela, aintzat hartzen dituztela suma dezatela, eta hezkuntza-premien arabera behar duten arreta aurki dezatela komunitate horretan.

Homogeneotasunaren irizpidea ez da jada hartzen eskolan emaitza onak izateko elementutzat, eta komunitate-ingurune heterogeneoen alde egiten da, komunitate horiek hartzen dira egokitzat ikasleek beste ikasleekin bizitzen ikas dezaten, eta, horrez gain, argudiatzen, kritikatzan, malgutasunez jokatzan, informazioa bilatzen, aukeratzen eta prozesatzen, taldean lan egiten, erabakiak hartzen, gatazkak konpontzen, solidarioa izaten... ere ikas dezaten. Azken finean, testuinguru egokia da curriculumeko alorrak ikasten eta bizi-proiektuan ardura hartzen lagunduko dioten zenbait gaitasun garatu eta gauzatu ditzan ikasleak. Ikaslearen testuinguru normalizatutik kanpoko lan espezializatura mugatuta zegoen lehen hezkuntza-laguntzaren ikuspegia, ikuspegi murriztailea zen beraz, eta, ikuspegi horretatik, beste ikuspuntu batera pasatu gara. Oraingo ikuspuntuaren arabera, errefortzutzat hartzen dira eskolak ikasleen aniztasunari erantzuteko duen gaitasuna handitzen duten jarduera guztiak. Labur esanda, jarduera horiek batez ere prebentiboak izaten dira, eta haien helburua izaten da denbora eta toki normalizatueta haien berdina direnekin elkarrekintza izan dezatela ikasleek.

Ikasleek elkarren artean, irakasleekin, familiekin, lagunekin... dituzten elkarrekintzen arabera da batez ere ikaskuntza, bai eta elkarrekintzak gertatzen diren testuinguruak izan dezaketan jarraipenaren arabera ere. Ikaskuntzan eragina du ikasgelan, etxean, kalean eta komunikabideetan gertatzen denak, eta, hortaz, eskola denez belaunaldi berrien hezkuntzaren ardura duen erakundea, garrantzitsua da mekanismoak eta estrategiak abian jar ditzala, testuinguruak jarraipena izan dezaten eta testuinguru batetik bestera koherentzia egon dadin. Zeregin horretan, funtsezkoa da ikasleekin harremanetan dauden pertsonen laguntza jasotzea irakasleek, batez ere, gizarte-egoera txarretan bizi badira ikasleak edo eskolako kulturatik urrun geratzen diren kultura-errealitateetako ikasleak badira.

Urritasunen bat duten ikasleen hezkuntza-premia berezien erantzuna asko garatu da, ikusmoldeari, legediari, baliabideei eta hezkuntzaren esku-hartzeari erreparatzen badiegu. Finkatuta dauden zenbait esperientziak emaitza pozgarriak izan dituztela esan dezakegu. Ikasgeletako eguneroko jardueri buruz hausnarketa kritikoa egiteko unea da, sistemako ahulguneak zein diren ikusteko eta HPB dituzten ikasleen arreta hobetzeko erabakiak hartu behar direnean orientatzeko.

» Xede-helburua

Hezkuntza-jardunean aurrera egitea, jende guztia barne hartuko duen eskola-esparrua lortzeko. Ikuspegi horretatik, gela arruntaren jardunean eragina duten alderdi guztiak garatzea, erantzun egokia emateko hezkuntza-premia bereziei.

» Lehetasunez garatu beharreko ekintzak

EKINTZAK	ADIERAZLEAK
<p>1. Esparru-plan bat egitea, Hezkuntza Bereziaren 2. Plana, hezkuntza-jardunean eta baliabideen horniduran orientatzeko, bai eta HPBak dituzten ikasleen arretari buruz erabakiak hartzen laguntzeko ere.</p>	<p>1.1. Hezkuntza Bereziaren 2. Euskal Plana egin da (2007ko abendua).</p>
<p>2. Prestakuntza- eta berrikuntza-proiektuak bultzatzea, irakasleak gela arruntean erantzun ahal izan diezaien, ikasleen hezkuntza beharrei, HPB dituztenei barne.</p>	<p>2.1. Prestakuntza-jarduerak eskaini izan dira urtero-urtero, eta aholkularitza-eskaerei erantzun zaie.</p>
<p>3. HPBetako adituen jarduera-irizpideak eta -protokoloak egitea.</p>	<p>3.1. Funtzionamendu-gutunak eta/edo jarraibideak argitaratu dira (2010).</p>
<p>4. Sailen arteko batzordeak sortzea, eta Hezkuntza, Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Justizia Sailen artean egon beharreko koordinazio-egiturak definituko dituzten protokoloak egitea, HPBak dituzten ikasleek eta haien familiek kalitatezko zerbitzua jasoko dutela ziurtatzeko.</p>	<p>4.1. Batzordeak sortu dira, eta protokoloak egin dira (2010).</p>
<p>5. Index for Inclusion (jardun inklusiboei buruzko adierazleak) adierazleen erabilera bultzatzea eta zabaltzea, ikastetxeen ebaluazio-prozesuetan sartzeko.</p>	<p>5.1. Ikastetxeen % 15ek egin dute autoebaluazioa Index for inclusion laguntza-materialtzat hartuz.</p>

1.2. GIZARTE- ETA KULTURA-ANIZTASUNA

Eskolan emaitza onak ateratzeko eta ikasle guztiak elkarrekin ondo bizitzeko arazoak edo zailtasunak sortzen dituzten oztopoak identifikatzean, gero eta argiago ikusten da zailtasun asko ez direla sortzen urritasun edo arazo pertsonalengatik, baizik eta eskolaren eta familien arteko kultura-distantziarengatik. Teoriak esaten du kultura desberdinak dituzten taldeetako ikasleen errendimendu txikian eragina duela lehen-lehenik eskola-esparruak haren kultura-nortasunari balio gutxi emateak, eta praktikak ere egiaztatu egiten du baieztapen hori. Irakasleak eta ikasleak ezagutza eraikitzen elkarlanean aritzen direnean, ikasle guztien nortasunak bermatzen diren testuinguruetan bakarrik lortzen dira emaitza onak.

Ikasle etorri berriek kultura nagusiaren oso bestelako kultura eduki dutenean, argi geratu da garrantzi handia duela kultura-aniztasuna kontuan hartzeak eskolako hezkuntzan. Aniztasun hori ez da sumatzen ikasle atzerritarren kasuan bakarrik, bertako ikasleengan ere ikusten da, gizarte-egoera edo ezaugarri etniko bat duten gizarte-taldeetakoak badira ikasleak eta talde horretakoek haien kultura badute; besteak beste, ijitoen komunitatekoak badira.

Lehen-lehenik, ikasleen familiako hizkuntza hizkuntza ofizialetako bat ez bada agertzen da kultura-aniztasuna, baina gauza bera gertatzen da gaztelaniaz hitz egiten dutenen kasuan, hizkuntza erabiltzeko desberdintasun handiak badituzte. Halaber, kultura-aniztasunaren eraginez, ikasleek ez dituzte erreferente berak jasotzen dituzten informazio berriei zentzua emateko.

Eskola inklusiboak bultzatzen dituen elkarrekintzetan, kontuan hartzen dira eta balioetsi egiten dira taldeko ikasleen kulturak. Hori dela-eta, hezkuntzak beste eremu bat hartzen du: kultura artekotasuna. Horretarako, eremu berean dauden kultura guztiak hezkuntzan sar daitezen laguntzen duten ekintzak bultzatzen ditu, eta argi uzten du kulturazintasuna aberastasunaren seinale dela. Halaber, eskola inklusiboaren ardura da bitarteko guztiak ematea ikasleek pertsona guztien bizimoduak, kultura-adierazpenak... ez direla berdinak errespetatzen ikasteko, eta hezkuntza-berdintasuna eskatzea eta eskaintzea, pertsona guztiek aukera berak izan ditzaten errealitatean.

» Xede-helburua

Ikasle guztiek eskolan emaitza onak izan ditzaten eta kultura arteko elkarbizitza ondo atera dadin, antolaketa-, metodologia- eta didaktika-ereduak garatzea.

KULTURA ARTEKO HEZKUNTZA PROGRAMA

Proposamen hau Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren «Kultura Artekotasunerako eta Ikasle Etorri Berrien Inklusiorako Programan» integratzen da, eta aurreko «Ikasle Etorrikin Artatzeko Programa» ordezkatzen du.

Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzak errealitate hori bazetorrela sumatu zuen egindako azterketan, eta, hori dela-eta, Kultura Arteko Hezkuntzaren Programa sartu zuen 2003-2006 hirurtekoan. Guztiz finkatuta geratu da. 2003-2004 ikasturtean, % 3,1 ziren gure eskola-sistemako ikasle etorkinak eta % 5,2 dira, berriz, orain, 2006-2007 ikasturtean.

Errealitate horrek aberastasun soziokulturala ematen dio eskolari (beste kultura batzuk ere bazituen barruan), eskolako elkarrekintzetan gertatzen den trukeari eta ezagutzari esker. Baina, halaber, beste zenbait erronka ere hartzea eskatzen du; besteak beste, ikasle guztien inklusioa eta partaidetza ziurtatzea, ikastetxeetan kultura arteko ikuspegia sartzea eta ikasle guztiek hizkuntza ofizialak ikas ditzatela bermatzea. Hori guztia egiteaz gain, ez da ahaztu behar ikasle etorri berri gehieneko egoerak eta zenbait gutxiengoren egoerak oztopoak sortzen dituztela, eta, oztopo horien eraginez, zailtasunak egoten direla eskolan emaitza onak izateko.

Aipatutako programarekin, hainbat neurri jarri dira abian; besteak beste, askotariko prestakuntza-eskaintza irakasleentzat, eskolatzeko-batzordeak, harrera-planerako eredu baten zabalkundea, hasierako ebaluaziorako hainbat orientabide, hizkuntza-errefortzuko irakasleak, curriculum-materialen argitalpena, bai hizkuntza-errefortzuko eskolarako, bai beste alor batzuetarako ere...

Kultura arteko hezkuntzaren ikuspegiaren oinarriak errespetua eta kultura aniztasuna aintzat hartzea dira; izan ere, hainbat balioaren multzo gisa ikusten da kultura arteko hezkuntza, errealitatea, ohiturak, antolaketa, espazioaren eta denboraren egituraketa, botere-harremanak, elkarrekintza-jarraibideak eta arauak... ulertzeko eta haietara moldatzeko askotariko modutzat. Gainera, modu horiek aldatu egiten dira.

Gizartea osatzen duten pertsona guztiei zuzenduta dago, oro har. Kultura arteko hezkuntza ez da gure ikasgeletan atzerriko ikasleak daudelako bakarrik justifikatzen, baizik eta hezkuntzaren betebeharra da oro har, ikasleak gizarte irekietan, askotariko gizarteetan, bizitzeko prestatu behar baitira, eta aktiboki lan egin behar baita kultura-esparru berria eraikitzen.

Ikuspegi horrek jarduera-eredu integratu bat proposatzen du, eta hezkuntza-prozesuaren eremu guztietan du eragina eredu horrek. Hori dela-eta, ezinbestekoa da jarduerak izaera orokorra izan dezatela, ez zehatza, ahalik eta eragile gehienek parte har dezatela eta antolaketa-alderdiez eta alderdi metodologikoez ere ardura dadila, eta, tartean, balioak, estrategiak eta helburuak azter ditzala.

Irakasleek eta ikasleek kultura arteko gaitasuna garatzeko, hainbat maila sartu behar dira; besteak beste, gainerakoen ezagutza eta aurkikuntza, hura onartzea eta harekin lotura sortzea eta elkarbizitzaren kudeaketa.

Berrikuntza-programa honetan proposatzen diren ekintzak ez dira derrigorrezko eskolatzetapetan bakarrik landu behar, baizik eta kontuan hartu behar dira Haur Hezkuntzan eta derrigorrezko etapetatik aurrerako etapetan ere.

Azken buruan, aukera-berdintasun erreala lortu nahi da, eskola-emaizta onak denentzat eta mota guztietako arrazakeria gainditzea.

» Programaren helburuak

1. helburua. Hainbat material eta metodologia-proposamen aukeratzea eta sortzea, hezkuntza-etapa guztietan kultura arteko hezkuntza barne-hartzailea lantzeko.

EKINTZAK	ADIERAZLEAK
1.1. Orientabideak egitea, ikastetxeek kultura arteko ikuspegia sar dezaten hezkuntza-proiektuan.	1.1.1. Ikastetxeek orientabideak dituzte, kultura arteko ikuspegia hezkuntza-proiektuan sartzeko (2008).
1.2. Kultura-aniztasun handia duten geletako lanari buruzko metodologia-orientabideak egitea.	1.2.1. Metodologia-orientabideak egin dira, kultura-aniztasun handia duten geletako lanari buruz (2010).
1.3. Esku hartzeko orientabideak eta ereduak egokitzea eta/edo egitea, etapetan lantzeko.	1.3.1. Esku-hartzeen ereduak bildu, egokitu eta/edo egin dira, Lehen Hezkuntzan, Bigarren Hezkuntzan eta HHEn lantzeko (2010).
1.4. Orientabideak egitea, pertsona helduen ikastetxeetako hezkuntza-planetan kultura arteko ikuspegia bultzatzeko.	1.4.1. Orientabideak daude pertsona helduen ikastetxeetako hezkuntza-planetan kultura arteko ikuspegia bultzatzeko (2009).

2. helburua. Ikasle etorkinei eta haien familiei ematen zaien arretan ikuspegi barne-hartzailea erabil dezatela bultzatzea.

EKINTZAK	ADIERAZLEAK
2.1. Harrera-plana egiteko gida-eredu bat buka-tzea eta zabaltzea. Gida-eredu horretan, lehenengo egunetan izan beharreko jokabidearen eta fami-liakoekin eduki beharreko harremanen argibideak ematea.	2.1.1. Dokumentu-base bat dago, ikastetxeei harrera-plana egiten aholkatzeko (2008).
2.2. Ikasle etorkinen familientzako oinarriko informazioa zabaltzea, hainbat euskarritan.	2.2.1. Ikastetxeek oinarriko informazioa dute, hainbat euskarritan eta zenbait hizkuntzatan, ikasle etorkinen familiei banatzeko (2008).

3. helburua. Kultura arteko ikuspegiaren oinarriko printzipioak izango dituen pres-takuntza-eskaintza bat egitea, hezkuntza-komunitatearentzat.

EKINTZAK	ADIERAZLEAK
3.1. Kultura arteko hezkuntzari buruzko prestakuntza-plan bat diseinatzea eta abian jartzea, hezkuntza-komunitatearentzat.	3.1.1. Kultura arteko hezkuntzarekin lotu-tako prestakuntza-ekintzak eskaini dira urtero.
3.2. Kultura arteko hezkuntzari buruzko hainbat proposamen egitea, zuzendaritza-taldeentzako prestakuntza-ekintzetan sartzeko.	3.2.1. Kultura arteko hezkuntzari buruzko berriazko materialak daude, zuzendaritza-taldeei prestakuntza emateko (2010).
3.3. Kultura arteko hezkuntzaren oinarriko prestakuntza-modulua irakastea, hizkuntza-errefortzuko irakasleak dituzten ikastetxe guztietan.	3.3.1. Kultura arteko hezkuntzaren mo-dulua irakatsi da, modulua eskatu duten ikastetxe guztietan.

4. helburua. Ikasle etorkinek eta gutxiengo etnikoek **EAEko hizkuntza ofizialak** ikas ditzatela bultzatzea.

EKINTZAK	ADIERAZLEAK
4.1. Esku-hartze ereduak egitea, Hizkuntzen Trataera Bateraturako Programarekin koordinazioan, ikuspegi inklusibotik, hizkuntza-errefortzuko gelan eta gela arruntean erabiltzeko.	4.1.1. Esku-hartze ereduak daude, bai hizkuntza-errefortzuko gelan, bai gela arruntean ere (2009).
4.2. Ikasle etorkinek hizkuntzak ikastearekin lotutako jardunbide egokiak zabaltzea, gela arruntean, ikuspegi inklusiboa erabiliz.	4.2.1. Hizkuntzak ikastearekin zerikusia duten jardunbide egokiak zabaldu dira.

5. helburua. Kultura arteko ezagutza bultzatzea, eskola-eremuko eragileen arteko elkarrekintza oinarri hartuta.

EKINTZAK	ADIERAZLEAK
5.1. Jarduera-ereduak egitea eta zabaltzea ikastetxeetan, erakundeek eta gizarte-elkarteek ikastetxeko eskola-bizitzan lagun dezaten sustatzeko.	5.1.1. Lankidetz- eta partaidetz- gida egin eta/edo hedatu da ikastetxeetan eta beste erakunde eta gizarte-elkarteetan.
5.2. Gogoeta-eremuak sustatzea, kultura arteko premia eta proiektu berak dituzten ikastetxeetan.	5.2.1. Kultura arteko proiektuak egiten ari diren ikastetxeen lan-taldeak daude.
5.3. Orientabideak egitea, eskola-curriculumean kultura arteko ikuspegia garatzeko.	5.3.1. Curriculumaren aplikazioan kultura arteko ikuspegia garatzeko orientabideak daude (2010).

» Garatu beharreko beste zenbait ekintza

EKINTZAK	ADIERAZLEAK
<p>1. Ikasle ijitoak hobeto eskolatzeko plan bat egitea eta abian jartzea, eta ikasle ijitoek eskolan emaitza hobek ateratzeko eta kultura arteko elkarbizitza hobetzeko proiektuak egiten laguntzea.</p>	<p>1.1. Plana egin da (2007). 1.2. Laguntza-neurriak abian jarri dira. 1.3. Ikasle ijitoak eskolan integratzen laguntzen duten erakundeen deialdiak egiten dira urtero.</p>
<p>2. Ikasle ijitoak dituzten ikastetxeak koordinatzea, jarraipena egitea, aholku ematea eta ikastetxe horietarako materialak egitea.</p>	<p>2.1. Materialak aztertzeke (2008) eta ikastetxerako eta gelarako lan-proposamenak izateke (2009) gida bat egin da, eta ikastetxeen esku jarri da. 2.2. Aholkularitza- eta prestakuntza-eskaera guztiei erantzun zaie.</p>
<p>3. Orientabideak egitea eta laguntza ematea Errefortzu, Orientazio eta Laguntza Proiektuetan (EOLP) parte hartu nahi duten ikastetxeei.</p>	<p>3.1. Gida bat dago, EOLP proiektuan parte hartzen laguntzeko (2008).</p>
<p>4. Aniztasunari erantzuteko aparteko neurriak (Curriculum Aniztasuna, Hezkuntzan Berariaz Esku Hartzeko Proiektuak, Eskolatzeko Programa Osagarriak...) barne-hartzaileak izan daitezen orientabideak egitea.</p>	<p>4.1. Orientabideak egin dira.</p>

1.3. BERDINTASUNA ETA GENEROA

Eusko Legebiltzarrak onartutako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legearen, otsailaren 18ko 4/2005 Legearen, azken helburua da berdintasunezko gizartea lortzeko aurrera egitea, eta pertsona guztiak askeak izatea gizarte horretan, bai eremu publikoan, bai pribatuan, gaitasun pertsonalak garatzeko eta sexuaren araberako rol tradizionalak ezarritako mugak alde batera utzita erabakiak hartzeko, bai eta berdintasunaren balioestea eta sustatzea ere emakumeen eta gizonen helburuak eta premiak.

Egia da eskolan asko aldatu direla genero-rolak, baina oraindik transmititzen dira curriculum-eduki androgentrikoak, balio eta aukera desberdinak ikasleentzat, espazioen eta denboren erabilera desberdinak... Eta emakumeen eta gizonen arteko desberdintasuna denez emakumeen kontrako indarkeriaren jatorria, beharrezkoa da hezkuntzatik prebentzioa lantzea, eta neska-mutilei estereotipoak alde batera utziko dituen gizarte-ereduak eskaintzea, garapen pertsonal eta sozial egokia izango dutela bermatzea, berdintasunean eta zuzentasunean oinarritutako elkarbizitzan. Elkarbizitza horretan, ezinbestekoak dira autonomiaren eta arduraren garapena, aginpide pertsonala garatzeko eta botere pertsonala behar bezala gauzatzeko, eta eragin berezia izatea genero-nortasun positiboaren eraikuntzan, afektibitate- eta sexu-harreman onuragarrietan, emakumeen boterea handitzen, alderdiak uztartzen eta ardurak banatzen eta indarkeria bertan behera uzten, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako EAEko IV. Planean jasota dagoenez.

» Xede-helburua

Nagusitasun- eta mendetasun-sistemen eraginez sortutako genero-desberdintasunak gainditzeko bidean aurrera egiteko jarduerak sustatzea, eta ahalegin berezia egitea indarkeriaren prebentziorako.

» Lehetasunez garatu beharreko ekintzak

EKINTZAK	ADIERAZLEAK
<p>1. Hezkidetzari eta Emakumeen kontrako Indarkeriaren Prebentzioari buruzko Esparru Plana egitea, hezkuntza-sisteman ezartzeko, gizon eta emakumeen arteko berdintasunerako IV. planean gomendatutako estrategiei jarraituz.</p>	<p>1.1. Hezkidetzari eta Emakumeen kontrako Indarkeriaren Prebentzioari buruzko Esparru Plana egin da (2008ko abendua).</p>
<p>2. Esparru-plana oinarri hartuta, prestakuntza-jardueren urteko eskaintza egitea, beste erakunde batzuekin (Emakunde) lankidetzan, eta hezkidetzako mintegiak indartzea eta sustatzea.</p>	<p>2.1. Prestakuntza-eskaintza egin da urtero. 2.2. Prestakuntza- eta berrikuntza-proiektuetatik sortutako eskaera guztiei erantzun zaie. 2.3. Hezkidetzako mintegiak daude. 2.4. NAHIKO proiektuan parte hartzeko eskaintza egin da.</p>
<p>3. Hezkuntza-komunitatea genero-indarkeriari buruz sentsibilizatzeko kanpainak bultzatzea.</p>	<p>3.1. Sentsibilizatzeko kanpaina bat egiten da urtero. 3.2. NAROrekin erkarlana bultzatzen da urtero.</p>
<p>4. Ikastetxeei laguntzeko hainbat material egitea eta hedatzea: hizkuntza ez-sexistaren gida, curriculum berdintasunaren eta generoaren ikuspegitik aplikatzeko gida, hezkidetzaren ezarpena ebaluatzeko adierazleak.</p>	<p>4.1. Material hauek egin dira: hizkuntza ez-sexistaren gida (2009); curriculum aplikatzeko gida (2010); hezkidetzaren ezarpena ebaluatzeko adierazleak (2009).</p>
<p>5. Ikastetxean prestakuntza egiteko 10 orduko A modulua diseinatzea.</p>	<p>5.1. Modulua diseinatu da (2008).</p>
<p>6. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak bultzatutako programa eta ekintza guztietan generoak duen eragina ebaluatzeko jarraibideak zehaztea.</p>	<p>6.1. Generoaren eragina ebaluatzeko jarraibideak jasotzen dituen dokumentu bat dago.</p>

»» 2. ARDATZA

ESKOLA HOBEA

Pertsona guztientzat kalitatezko hezkuntza bermatzea da euskal hezkuntza-sistemaren oinarritzko eta lehentasunezko erronka, pertsona diren aldetik garatzeko, herritar parte-hartzaileak izateko eta jakintzaren gizartean integratu nahi duten kide aktiboak izateko beharrezkoak diren gaitasun guztiak edukitzeko.

Helburu horrek zerikusi zuzena du ikastetxeekin, eskolako hezkuntza-jardueraren oinarritzko unitateak baitira. Ikastetxeak hezkuntza-komunitate osoak osatzen ditu, eta bertako kideek, bakoitzak dagokion funtzioa betetzean, heziketa-proiektua denon artean praktikan jartzeko ardura daukate.

Hezkuntzaren hobekuntzan aurrera egiteko, arreta berezia merezi dute bereziki irakaskuntzaren kalitatean sakonkien eragiten duten faktoreek. Haien artean, hiru faktore nabarmen daitezke, ikastetxeek behar bezala funtzionatzeko oinarritzkoak direnak: hezkuntza-komunitatearen aitzindaritza bere gain hartuko duen zuzendaritza; eskolako elkarbizitza, bizitzarako eta lanerako eremu izan dadin; eta familien eta ikastetxeko komunitatearen arteko lankidetzak.

Azken urteetan, aurrerapausoak egin dira hiru alderdi horietan, baina oraindik ere gabezia argiak aurkitzen dira. Hori dela-eta, beharrezkoa da ekimen berriak garatzea, 2007-2010 hirurtekoan, ikastetxeetan hobekuntzak egiteko helburuarekin. Ardatz horrek hiru jarduera-ildo nagusi ditu:

- 2.1. Aitzindaritza- eta kudeaketa-prozesuak.
- 2.2. Elkarbizitza eta hezkuntza-komunitatea.
- 2.3. Ikaskuntzaren kalitatea: eskola-arrakasta guztientzat.

Ikastetxeak kalitatezko irakaskuntzaren benetako eragileak izan daitezen, beharrezkoa da hezkuntza-komunitate osoa proiektu komun batean inplikatzeko, eta bertako kide bakoitzak bere funtzioak eta eginkizunak betetzea. Zuzendaritzak aitzindaritza bere gain hartuta, dauden baliabideen kudeaketa optimizatuta eta guztion parte-hartzea lortuta bakarrik egin daiteke hori.

Eskolako elkarbizitza eta curriculumak ikastetxeek ikasleak hezteko dituzten oinarritzko tresnak dira. Irakasleek tresna horiek erabiltzen jakin beharko dute, ikasleek ikasteko baldintza egokiak aurki ditzaten. Eskola eremu egokia da elkarbizitza lantzeko, eta, une honetan, premiazko lana da, pertsonen eta herritarren prestakuntzan oinarritzko ikasketa baita.

Ikastetxeak ezin dira bakarrik egon, eta ezin dute proiektua mahaigaineratu lekuko gizarte-komunitatea kontuan hartu gabe. Ikas-komunitateen esperientziak, besteak beste, ikastetxeen hezkuntza-jardura gizarte-testuinguru batean txertatzeko asmoa du, guztion artean ikasleek jakintzaren gizartean beharrezkoak diren ikasketak bereganatzeko ahalegina egiteko.

2.1. AITZINDARITZA- ETA KUDEAKETA-PROZESUAK

Egindako ikerketek eta izandako esperientziek agerian utzi dute zuzendaritzak aitzindaritza bere gain hartzea elementu nagusia dela hezkuntzaren kalitatea hobetzeko. Haren zeregina bi mailatan da funtsezkoa: ikastetxeko hezkuntza- proiektuak dinamizatzeko, eta hezkuntza-berrikuntza sustatzeko. Gero eta nabarmenagoa da zuzendaritzak hauek lortzeko gai izateko beharra: hezkuntza-komunitatearekin batera ikastetxearen helburuak definitzeko, proiektuak autonomiaz eta arduraz aurrera eramateko aitzindaritza demokratikoa bere gain hartzeko, eta ikastetxeko bizitzan sortzen diren gatazkei modu konstruktiboan eta positiboan aurre egiteko.

Horretarako, funtsezkoa da zuzendaritza-funtzioa betetzeko behar diren gaitasunak dituzten pertsonak egotea, prestakuntza egokia eta beharrezko tresnak dituztenak.

«Kalitatearen Kudeaketa Sistemak (KKS)» proiektu esperimentalak, duela urte batzuetatik hona EAEko zenbait ikastetxetan aurrera eraman dena, bertako zuzendaritzek eta klustroek sustatu eta positiboki baliotsi dute. Iritsi da hura finkatzeko unea, sakonduz, prozesu eta hobekuntza-esparruak erantsiz eta beste ikastetxe batzuetara zabalduz.

Eskolako zuzendaritza da aldaketaren kudeaketaren arduraduna, eta, hori dela-eta, bere zuzendaritza-funtzioa funtsezko alderdi batzuetan oinarritu behar du, ikastetxearen baitan: zuzendaritza-prozesuaren ikuskera berri bat izatea; plangintza estrategiko bat egitea eta giza baliabideak kudeatzea, eredu berrietatik abiatuz; eskumenak kudeatzea; lanbide-garapena sustatzea; taldean eta sarean lan egitea; aitzindaritza bere gain hartzea; ikasgelako irakaskuntza-aitzindaritza onartzea eta errespetatzea; kalitatezko ereduak aplikatzea; hezkuntza-komunitatearen parte-hartzea sustatzea; kalitatea ebaluatzea; eta eskola-eraginkortasuna eta -efizientzia nahiz ikastetxearen hobekuntza sustatzea.

Kudeaketa on batek baldintza egokiak sortzen ditu, eszenatoki egokiak eraikitzen ditu, eta gaitasunak eta tresnak jartzen ditu lan-taldeen esku. Hezkuntza-komunitatea osatzen dutenen helburuak kolektiboki lortzeko bideak identifikatzea da eskolako zuzendaritzaren zeregina.

Ikastetxeetan aitzindaritza- eta kudeaketa-prozesuak bultzatzea da helburua, lehen aipatutakoak sustatzeko, pertsonen eta komunitatearen ongizatean oinarrituz.

» Xede-helburua

Ikastetxeetan, eskola-eraginkortasuna bultzatzen duten gidaritza- eta kudeaketa-prozesuak sendotzen aurrera egitea, «Kalitatea Hezkuntzan» kalitatezko kudeaketa-sistemaren diseinua, garapena eta ezarpena hedatuz eta orokortuz.

«KALITATEA HEZKUNTZAN» PROGRAMA

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak esperimentazio-proiektu pilotu bat jarri zuen martxan 2002-2003 ikasturtean, ikastetxeetako esperientziak eta eskakizunak kontuan hartuta: «Kalitatearen Kudeaketa Sistemak». Proiektu horrek jarraipena izan zuen 2004-2005eko deialdiaren bidez. Esku-hartze sistematikoko esparru bat eskaintzea zen haren helburua, ikastetxeen jarduera-eremu nagusiak hobetzeko. Kudeaketa-tresna bat izateko aukera sortu zen, proiektuaren diseinua errazteko (Ikastetxeko Hezkuntza Proiektua), eta bertan oinarritzen dira ikastetxearen jarduera nagusia eta, batez ere, proiektua indarrean dagoen bitartean jarduera hori zuzentzeko ildo estrategikoak. Era berean, prozesu eta azpiprozesuen bidez ildo estrategikoak garatzeko bidea erraztu zen, bai eta sortzen ari zen sistema berrikusteko eta hari eusteko dinamika ere. Hobekuntza-taldeen lanak eta ikastetxe-sareek osatzen zuten proposamena.

2003-2006rako Hezkuntza Berriztatze Zuzendaritzaren 5. lehentasun-ildoak («Ikastetxeen kalitatea eta etengabeko hobekuntza») izan da, epe horretan, aipatutako deialdi horietarako eta lortutako emaitzen ebaluaziorako esparru nagusia, eta, ondorioz, «Kalitatea Hezkuntzan» deritzan Kalitatearen Kudeaketa Sistema, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak ikasketa ez-unibertsitarioko ikastetxeei eta Hezkuntza Sistemaren Laguntza Zerbitzuei proposatutakoa, zabaldu eta orokortu egin da. Era berean, «Kalitatea Hezkuntzan» sistema diseinatzeke, garatzeko eta txertatzeko eskakizunak definitu dira; ikastetxeen kudeaketa-sisteman gutxieneko kalitatea bermatzeko garrantzitsuak diren kudeaketarekin lotutako eskakizunak eta zehaztapenak ezarri dira, gero, Hezkuntza Ikuskaritzak egindako auditoria gainditu ondoren, Sistemaren ziurtagiria eta haren egiaztatze-zigilua lortzeko.

Epe berri honetan, sistema aplikatzen ari diren ikastetxeen ibilbidea kontuan hartuta, sistemaren diseinuan, garapenean eta txertaketan aurrera egiteko beharra sortu da; hori dela-eta, «Kalitatea Hezkuntzan 2» sortu da. Honako prozesu eta/edo azpiprozesuak biltzen ditu: «Eskaintza akademikoa», «Ikastetxearen antolaketa», «Matrikulazioa eta publizitatea», «Unitate didaktikoetan oinarrituz programatzea», «Errefortzu-neurriak», «Taldekotutako tutoretza», «Familien asebetetzea» «Prestakuntza» eta «Barne-auditoria».

Bestalde, agerikoa da ikastetxe bakoitzean garatutako estrategien ondorioek egoera berriak sortzen dituztela, konpromiso eta aukera berriak; egoera horietarako, ikastetxearen erabakitze-aukerak zabal daitezke. Berrikuntza —hau da, esperimentazioan eta sormenean oinarritutako irakaskuntza- eta ikaskuntza-testuinguru berriak sortzeko aukera— hobekuntzarako oinarritzko helburua izango da.

Azkenik, sareko lanean aurrera egitea proposatzen da. Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta Bigarren Hezkuntza sare bakarrean bilduz, esperientziak denon artean azter eta koordinatu daitezke; horrela, kasu zehatzak aztertzeke esparru bat ezartzen da, eta etapa guztietarako erabilgarriak diren

erreferentziak finka daitezke, ez EAEn soilik, baita ezarritako sistemarekiko interesa azaldu duten beste batzuetan ere.

» Programaren helburuak

1. helburua. «Kalitatea Hezkuntzan» sistema erabiltzen duten ikastetxeen esperientzia EAeko ikastetxeetara eta laguntza-zerbitzuetara zabaltzea.

EKINTZAK	ADIERAZLEAK
<p>1.1. Berritzeguneetako langileak «Kalitatea Hezkuntzan» programaren dinamizatzaile, hedatzaile eta programa garatzeko laguntzaile izan daitezten prestakuntza ematea, bai eta ikastetxeetan sistema hori ezartzearen eraginez sortzen diren ondorioei aurre egiteko ere.</p>	<p>1.1.1. EAeko Berritzegune guztietan eman da prestakuntza (2007ko abendua).</p> <p>1.1.2. «Kalitatea Hezkuntzan» sistemari lotuta ikastetxeetan egindako eskaera guztiei erantzun zaie.</p>
<p>1.2. Irakasleentzako prestakuntza-plan bat egitea, zuzendaritza-taldeko kideen partaidetzari lehenetsua emanda.</p>	<p>1.2.1. Berariazko prestakuntza-ikastaroak eskaini dira urtero.</p>
<p>1.3. Programaren barruan ikastetxe berriak sartzeko deialdiak argitaratzea urtero.</p>	<p>1.3.1. Deialdia argitaratu da, eta deialdian parte hartzea eskatu duten ikastetxe guztiei lagundu zaie parte hartzen.</p>
<p>1.4. «Kalitatea Hezkuntzan» kudeaketa-sistemaren prestakuntza-materiala egitea.</p>	<p>1.4.1. 10 orduko A prestakuntza-modulua diseinatu da (2007ko ekaina).</p>

2. helburua. «Kalitatea Hezkuntzan» sisteman prozesu eta azpiprozesu berriak sartzea, eta egin beharreko ikuskapenak egitea.

EKINTZAK	ADIERAZLEAK
<p>2.1. «Kalitatea Hezkuntzan 2» osatzen duten prozesuak edo azpiprozesuak diseinatzea, garatzea eta ezartzea.</p>	<p>2.1.1. 30 ikastetxek diseinatu, garatu eta ezarri dute «Kalitatea Hezkuntzan 2».</p>
<p>2.2. Aurreikusitako kanpo-ikuskaritzan parte har dezaten, ikastetxeak dinamizatzea eta ikastetxeei laguntzea.</p>	<p>2.2.1. «Kalitatea Hezkuntzan» ezarri duten ikastetxeen % 90 aurkeztu dira egin beharreko kanpo-ikuskapenera (2010eko ekaina).</p>
<p>2.3. «Kalitatea Hezkuntzan 2» faseari dagokion informazioa hedatzeko, ikuskaritzarekin koordinatzea.</p>	<p>2.3.1. Maila bakoitzeko bilera bat egin da gutxienez, fase berri honekin lotutako alderdiak koordinatzeko.</p>

3. helburua. «Kalitatea Hezkuntzan» sistema diseinatzen, garatzen eta ezartzen duten ikastetxeen sareko lana indartzea.

EKINTZAK	ADIERAZLEAK
3.1. Hainbat etapatako ikastetxeek eta sistemara hainbat garaitan sartutako ikastetxeek osatzen dituzten sareak bateratzea.	3.1.1. «Kalitatea Hezkuntzan» izeneko sare bakarra dago, eta, sare horretan, aurreikusitako bi faseetako batean sistema diseinatzen, garatzen edo ezartzen ari diren Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxeek parte hartzen dute (2008ko ekaina).
3.2. Eskarmentu handieneko ikastetxeek ikastetxe berrienei tutoretza kudeatzea.	3.2.1. Harreman egonkorrak sortu dira ikastetxeen artean, barne-ikuskapenen diseinu-fasean eta ikuskapenean bertan laguntzeko.
3.3. Intraneteko eredu komun bat diseinatzen laguntzea, kudeaketa-sistemara bizkor sartu ahal izateko, bai eta sistema ezarrita sortutako informazio guztira ere.	3.3.1. Sareko ikastetxeek intranet-eredu bat dute, sistema eta sistema ezartzetik sortu diren beste materialak kudeatzeko (2008ko ekaina).

4. helburua. Hezkuntza-proiektuetan onartutako ildo estrategikoak garatzearekin lotuta dauden erabakiak hartzeko ikastetxeek duten gaitasuna handitzea.

EKINTZAK	ADIERAZLEAK
4.1. Proiektu pilotuak egitea ikastetxeren batean, eta autonomia handiagoa ematea curriculum- eta pedagogia-eremuetan, ekonomia-eremuan eta langileen kudeaketa-eremuan.	4.1.1. «Kalitatea Hezkuntzan» sareko hamar ikastetxe aukeratu dituzte, ikastetxeen autonomia hobetzeko proiektu pilotuak egiteko.
4.2. Egindako proiektuak ebaluatzea, hedatzea eta orokortzea.	4.2.1. Autonomia-proiektuak ebaluatu egin dituzte, eta eremu guztietan hedatu dituzte ondorioak eta orokortzeko aukerak.

5. helburua. Irakaskuntza-ikaskuntza prozesuarekin edo ikastetxearen antolaketa azpiprozesuarekin lotutako ekintza berritzaileekin saiakuntzak egin ditzatela bultzatzea, ikasleek esku-hartzeko, irakasleak koordinatzeko eta familiek eta kanpo-eragileek parte hartzeko eredu berritzaileak probatzeko eta baloratzeko.

EKINTZAK	ADIERAZLEAK
<p>5.1. Taldeak, ordutegiak, metodologiak eta materialak aldatzeko aukera emango duten urteko hobekuntza-planak garatzeko saiakuntzak egitea, hezkuntza-etapetako mailetan.</p>	<p>5.1.1. «Kalitatea Hezkuntzan» sareko bost ikastetxek egin dituzte urteko hobekuntza-planak. Ikastetxe horietan, irakaskuntza-ikaskuntza prozesuarekin eta ikastetxearen antolaketa azpiprozesuarekin lotutako saiakera berritzaileak egin dituzte.</p>
<p>5.2. Egindako hobekuntza-planak ebaluatzea, zabaltzea, eta, behar izanez gero, orokortzea.</p>	<p>5.2.1. Hobekuntza-planak ebaluatu egin dituzte, eta eremu guztietan zabaldu dituzte ondorioak eta orokortzeko aukerak.</p>

» Garatu beharreko beste zenbait ekintza

EKINTZAK	ADIERAZLEAK
<p>1. Hasierako prestakuntza kudeatzea, eta zuzendaritza-taldeei prestakuntza etengabea emateko Berritzeguneetan egindako lanari laguntzea.</p>	<p>1.1. Deialdi bakoitzaren ondoren, 170 orduko prestakuntza-ikastaro bat eskaintzen da, eta izendatu aurretik egiten da. 1.2. Berritzeguneetako (Berriargi eta Bizkaiberri) zuzendaritza-mintegiak urtean zazpi aldiz (7) biltzen dira.</p>
<p>2. Zuzendaritza-taldeen elkar ezagut dezatela bultzatzea, eta administrazioko beste estamentuekin komunikazioa erraztea.</p>	<p>2.1. Ikasturte bakoitzaren hasieran eta amaieran egiten dira bilerak.</p>
<p>3. Zuzendaritza-talde egonkorak ebaluatzeko eta etengabe hobetzeko sistema bat diseinatzea eta abian jartzea.</p>	<p>3.1. Arrakasta-adierazleen zerrenda bat diseinatu da (2008). 3.2. Ikastetxe publikoen zuzendaritza ebaluatzeko diseinu bat egin da (2009). 3.3. Sei ikastetxetan (6) probatu eta zabaldu da.</p>
<p>4. Saileko beste instantziekin lankidetzan aritzea, eskola-zuzendaritzaren esparru eguneratua zehazteko, eta ondorio guztietarako sustatzeko: ondorio profesional eta ekonomikoak, prestakuntza...</p>	<p>4.1. Zuzendaritza-funtzioari buruz Sailak izan dituen ekimen guztietan parte hartu da.</p>

2.2. ELKARBIZITZA ETA HEZKUNTZA-KOMUNITATEA

Elkarbizitzarako, Bakerako eta Giza Eskubideetarako heztea ezinbesteko beharra da gure gizartean; baina nola egin zehazteko, denboraz eta sakontasunez hausnartu behar da. Ikastetxeak horretan garrantzi handia du, nahiz eta ez den gizarteratzeko eragile bakarra; familiek, inguruneak, gizarte-ereduek eta komunikabideek ere ardura hori dute.

Eusko Jaurlaritzaren osatzeko 2005eko ekainean egindako Koalizio Itunak, giza eskubideak defendatzeko eta indarkeria baztertzeko helburuarekin, bakearen kulturaren aldeko apustua egiten du; horrek zera esan nahi du: «erreferentzia etikoak barneratzea eta haien arabera bizitzea, hauek errespetatuz: giza eskubideak, bai banakakoak, bai kolektiboak, berdintasuna, elkartasuna, gizarte-justizia, aniztasuna eta askatasun zibilak eta politikoak». Horretarako, konpromiso batzuk hartu behar dira: «hezkuntzaren arloan berariazko programak eta proiektuak martxan jartzea, giza balioetan, bakearen kulturaren eta tolerantzian hezteko, horretarako egokiak diren neurriak hartuta: arauak ezarriz, antolatuz eta egoki sustatuz». Era berean, bai Lehendakariaren Bake Planak, bai Justizia Sailaren Bakean eta Giza Eskubideetan Hezteko Euskal Ekintza Planak baterako lana egiteko beharra azpimarratu dute.

Gainera, euskal gizarteak bake- eta itxaropen-eszenatokia sortzeko beharra aldarrikatzen du. Bakearen bidez, hain irrikatutako elkarbizitza demokratikoa iritsiko da, tolerantzian eta errespetuan oinarritutakoa, eta adiskidetzarako baldintza egokiak sortuko dira. Adiskidetze-prozesuak sustatzeko baldintzak sortzeko ibilbide luze eta interesgarri horretan, giza eskubideen kultura gida ziurra da, eta bide horretatik joan dira beste gizarte batzuk historian zehar.

Ikastetxea ingurune aberatsa da eskola-komunitateko pertsona guztien ongizate emozionala lortzeko bizi-pen eta elkarrekintzatan, hainbat jarreraren bidez: onarpena, kide sentitzea, hobetzeko aukera, norberaren oreka, asebetetzea edo umore ona. Testuinguru horretan, bizitzan eta pertsonen arteko harremanetan sortzen diren desadostasunak eta gatazkak indarkeriarik gabeko estrategiak garatzeko aukeratzat har daitezke, estrategia indartsuak baina ez autoritarioak, berdintasunezkoak, legezkoak, aringarriak eta arduratsuak; egoera eta une horietan, pertsonen balioa babestuko da, bai eta norberaren garapen pertsonala eta soziala ere. Desadostasunen eta gatazken zergatiak aurkitzeko zenbait faktore aztertu behar dira: pertsonalak, gatazka dutenenak, ikastetxearen eta ikasgelaren antolaketari dagozkionak, ikasleen arteko eta ikasleen eta irakasleen arteko harremanari dagozkionak, bai eta AZPrekikoak eta familiekikoak ere.

Hezkuntza-sistemaren kalitatearen printzipioak hainbat alderdi biltzen ditu: oinarritzeko eskubide eta askatasunen errespetuan heztea; gizonen eta emakumeen arteko benetako berdintasuna; elkarbizitza demokratikoaren printzipioei jarraituz tolerantzia eta askatasuna gauzatzea; bizitza pertsonaleko, familiarreko eta sozialeko arlo guztietan gatazkei aurrea hartzeko eta haiek modu baketsuan konpontzeko prestakuntza; eskubide eta betebeharretan heztea, hezkuntza-komunitateko kide guztien duintasuna, integritatea eta intimitatea errespetatuz; eta hezkuntza-komunitate osoak ikastetxeko antolaketarako, elkarbizitzarako eta diziplinarako arauak errespetatzea.

Bestalde, besteekin batera bizitzen ikastea da hezkuntza-sistemaren helburuetako bat. Bizitzarako ikaskuntza erabilgarriena norberarekiko nahiz besteekiko harreman positiboa ezartzea da, eta hori hainbat baliotan hezteko oinarrizko ardatza da: justizian, berdintasunean, elkartasunean, elkar errespetatzean, eta indarkeria ezean. Giza eskubideen errespeturako, elkarbizitzarako eta bakerako hezteak norberaren eta komunitatearen ongizatea handitzen du, eta euskal hezkuntza-sistemaren kalitatean aurrera egiteko erronka berria da.

Hezkuntzaren arloko jarduerak arreta eta trataera berezia eskatzen du. Ezinbestekoa da bakearen kulturaren eta elkarbizitzaren balioak zabaltzea; hau da, gizartean pertsonen oinarrizko eskubideen eta askatasunen defentsa eta bermea sendotzeko joera duten diskurtsoak, ekintzak eta ekimenak babestea eta sustatzea, elkarren osagarri diren bi premisa oinarritzat hartuz: berdintasunaren printzipioa eta desberdintasunaren errespetua.

Euskal hezkuntza-sistemak hau sustatzen du: elkarbizitzarako hezkuntza; herritar demokratikoak, aktiboak eta arduratsuak hezteko balioak: justizia, tolerantzia, errespetua, elkartasuna...; eta ikasleen gaitasunak garatzea, gatazkak eta arazoak konpontzeko, norberaren bizitza arduraz kudeatzeko, norberarekiko eta besteekiko harreman positiboak izateko, erabakiak hartzeko, irizpide kritikoz jokatzeko, eta ingurunea sormenez eraldatzeko ekintzak bideratzeko.

» Xede-helburua

Oinarri hauek izango dituzten harremanak sortzea ikastetxeen artean: eskubideak eta betebeharrak, pertsona guztien duintasunaren errespetua, gizartearen aldeko jarrerak eta gatazken aldaketa etikoak bultzatuko dituzten hezkuntza-irizpideak eta irizpide inklusiboak.

ELKARBIZITZAN, BAKEAN ETA GIZA ESKUBIDEETAN HEZTEKO PROGRAMA

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak 2000. urtean jarri zuen martxan elkarbizitzarako lehenengo hezkuntza-programa; gerora, zabaldu eta sakondu egin da, gaur egun arte. Ikastetxe askok parte hartu dute programak sustatutako ekintzetan, eta esan daiteke une honetan hezkuntza-komunitatean sentiberatasun handia dagoela sakontzearen eta elkarbizitza hobetzearen beharraz.

Ikasleak jakintza arloetako ezaguerak edota ohitura eta teknika intelektualak bereganatzeaz gain, batez ere ikasleek bizitza duina izan dezaten beharrezkoak diren gaitasun guztiak garatzea da hezkuntza-sistemaren helburua, eta hori da gizarteak hezkuntza-sistemari egiten dion eskakizuna.

Helburu hori betetzeko, hainbat gaitasunen garapenean oinarritutako hezkuntza proposatzen da. Alde batetik, norberaren gaitasunak, testuingurua ulertzeko, bizitzarako planak eta norberaren proiektuak sortzeko eta kudeatzeko, eta norberaren eskubideak, interesak, beharrak eta mugak defendatzeko eta finkatzeko; hau da, modu autonomoan eta kritikoa pentsatzeko eta jokatzeko behar den guztia, pertsona bakoitzak bere kabuz erabaki dezan zer egin behar duen bere bizitzako une eta egoera bakoitzean. Bestalde, beste pertsonekin harreman positiboak izateko gaitasunak, lankidetzan aritzeko eta gatazkak kudeatzeko, elkarbizitzaren printzipio demokratikoei jarraiki herritar-eskubideak eta –betebeharrak bere gain hartzeko, eta bakerako eta elkarbizitzarako oinarritzko balioak bereganatzeko, hala nola, elkarrizketa, tolerantzia, askatasuna, elkartasuna, berdintasuna, justizia eta giza eskubideen errespetua.

Ikastetxeko elkarbizitza ona izatea funtsezko baldintza da irakasteko eta ikasteko prozesua aurrera eramateko eta, beraz, hezkuntzaren funtsezko helburuetako bat da besteekin batera bizitzen ikastea.

Elkarbizitzaren eraikuntzan aurrera egiteko, gainditzeko zailak diren oztopo ugari dago, indarrean dauden gizarte-balio eta -ereduak gatazkak konpontzeko indarkerian eta nagusitasun-menpekotasunezko harremanetan oinarritzen baitira. Eskola-instituzioetan balio eta eredu horiek errepikatu eta betikotu daitezke, ez badira neurriak hartzen, ikuspegi kritikoz eta haiek gainditzeko asmoz.

Elkarbizitzarako hezteko beharrezkoa da bi paradigma horiek erauztea, eguneroko jardunak eraldatuz, hezkuntza-komunitatearentzat elkarrekin bizitzeko beste modu bat, justuagoa eta atseginagoa, posible dela egiaztatzeko. Horretarako, beharrezkoak dira esku-hartze koordinatuetan eta ikuspegi sistemikoetan oinarritutako ekintza berriak.

Horregatik, beharrezkoa da ikastetxeetan indarkeriaren kultura gainditzeko prozesua martxan jartzea, haren bidez ikasleak bake positiboan gizarteratzeko, eta, ikastetxeetatik abiatuz, gizartearen elkarbizitzaren oinarriak ezartzeko: elkarriketa, errespetua, ardura eta komunikazioa. Horren bidez, gatazka pertsonalak, laboralak, sozialak edo politikoak konpontzeko, erasorik, bidegabekeriarik eta indarkeriarik gabeko ingurune bat sortzeko sarea osatzea bilatzen da.

Hezkuntza-jarduera koherentea izateko, ikastetxeetan gatazkek sortzen direnean, haiei aurre egiteko azterketa sakona egin behar du, eta beti ere hezkuntza-irizpideetan oinarritu behar du: ikasle guztiak kontuan hartzea eta denei laguntzea, bereziki eskola-bazterketa jasateko arrisku handia dutenak, hori izan ohi baita gizarte-bazterketaren aurrekaria.

Hori guztia euskal gizartearen kohesioa, justizia eta bakea eraikitzen eraginkortasunez laguntzeko helburuarekin.

» Programaren helburuak

1. helburua. Ikastetxean Elkarbizitzaren Behatokia sortzea eta Urteko Elkarbizitza Plana (UEP) egitea bultzatzea.

EKINTZAK	ADIERAZLEAK
1.1. Gida bat egitea, Urteko Elkarbizitza Plana (UEP) egiteko.	1.1.1. Ikastetxe guztiek eskura dute UEP egiteko gida bat (2007ko abendua). 1.1.2. Ikastetxeek UEP egin dute, gidaren orientabideei jarraituz.
1.2. Orientabideak egitea, ikastetxean Elkarbizitzaren Behatokia bultzatzeko eta sortzen laguntzeko.	1.2.1. Ikastetxe guztiek Elkarbizitzaren Behatokia sortzeko eta UEP egiteko aukera eman da.
1.3. Prozesu horiek abian jartzen dituzten ikastetxeen jarraipena egitea eta laguntzea.	1.3.1. Gida egin duten ikastetxe guztien eskaerei erantzun zaie, bai materialak emanez, bai orientabideak ere, bai eta hezkuntza-komunitatearentzako prestakuntza ere.

2. helburua. Indarkeria-seinale guztiak hautemateko beharrezko baldintzak sortzea, bai eta ikasleek gizartearen aldeko jarrerak gara ditzatela bultzatzeko hezkuntza-irizpideak ere.

EKINTZAK	ADIERAZLEAK
<p>2.1. Antolakuntza- eta jarduera-araudia (AJA) aztertzekeo laguntza, bai eta ikastetxearen antolaketa, araudiak eta zigorrak hertsiki hezkuntza-irizpideetara egokitzeko ere.</p>	<p>2.1.1. AJA aztertzekeo orientabideak egin dira, eta ikastetxeen eskura daude (2008).</p>
<p>2.2. Berdinen arteko edo hezkuntza-komunitateko kideen arteko indarkeria-egoeretan jarduteko protokoloak zabaltzen eta erabiltzen laguntzea.</p>	<p>2.2.1. Protokoloak ikastetxeen eskura daude (2007ko abendua). 2.2.2. Protokolo bakoitzaren erabilerari eta balorazioari buruzko urteko txostena egiten da.</p>
<p>2.3. Gizartearen aldeko jarrerak garatzeko estrategiak diseinatzea eta probatzea.</p>	<p>2.3.1. Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako ikasle guztiak gizartearen aldeko jarrerak garatzeko materialak, estrategiak eta tresnak probatu dira, eta ikastetxeen eskura jarri dira.</p>

3. helburua. Gatazken tratamenduan indarkeria kentzea eta harreman-eredua nagusitasuna-sumisioa ez izatea sustatzea.

EKINTZAK	ADIERAZLEAK
3.1. «Bizitza eta elkarbizitza onuragarria izan» modulua edo/eta elkarbizitzari eta gatazken tratamenduari buruzko beste zenbait jarduera irakastea ikastetxean.	3.1.1. Ikastetxe guztiei eman zaie elkarbizitzari eta gatazken tratamenduari buruzko prestakuntza-ekintzak egiteko aukera.
3.2. Gatazkek elkarriketaren eta aldaketa etikoaren bitartez tratatzeko estrategiak erabiltzea sustatuko duten orientabideak egitea eta ekintza sistematikoak abian jartzea.	3.2.1. Berritzegune guztietan, mintegien eta lan-taldean eskaintzak egiten dira urtero. Mintegi eta lan-talde horiek gatazken aldaketari buruzko materialak eta esperientziak pasatzen dizkiote elkarri. 3.2.2. Gatazkek etikoki aldatzeko materialak eta proposamen jakinak jarri dira ikastetxeen eskura. 3.2.3. Prestakuntza-jarduerak egin dira laguntza- eta ikuskapen-zerbitzuentzat, eta jardunbide egokiak irakatsi dizkiete elkarri.
3.3. Geletan metodologia elkarreragileak sartzeko prestakuntza eta materialak ematea.	3.3.1. Irakasleei metodologia horiei buruzko prestakuntza emateko ikastaroen eskaintza egin da, eta ikastaroen erabileraren jarraipena eta balorazioa egin da, Berritzegune bakoitzaren ikastetxeen lagin batean.

4. helburua. Giza eskubideen errespetuan eta gizarte bidezko eta solidarioagoaren eraikuntzan aurrera egiteko aukera emango duten balioak, jarrerak eta jarduerak sustatzea.

EKINTZAK	ADIERAZLEAK
<p>4.1. Gure herrialdeko egoera soziopolitikoari buruzko unitate didaktikoak egitea, Bigarren Hezkuntzako ikasleentzat.</p>	<p>4.1.1. Egin eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxe guztietara zabaldu dira (2007ko abendua).</p> <p>4.1.2. Irakasleek unitate didaktikoak baloratu dituzte, eta beharrezko aldaketak eta gehikuntzak egin dituzte.</p>
<p>4.2. Ikasleen partaidetza bultzatzeko estrategiak eta tresnak egitea.</p>	<p>4.2.1. Ikasleen partaidetza bultzatzeko sentsibilizazio- eta prestakuntza-jarduerak diseinatu dira, eta ikastetxe guztiei eskaini zaizkie.</p>
<p>4.3. Bigarren Hezkuntzako ikasleek Gazte Plenoan parte hartzea antolatzea eta dinamizatzea, gizarte-gai garrantzitsuak eta adierazgarriak lantzeko.</p>	<p>4.3.1. Gazte Plenoan bi saio egin dira urtean.</p>

5. helburua. Udalerrian, elkarbizitzako proiektu integralak proba ditzatela sustatzea.

EKINTZAK	ADIERAZLEAK
<p>5.1. Udalerrian edo auzoan plan integral bat probatzea, hezkuntza-komunitate osoa tartean sartuz. Plan horrek beste testuinguru batzuetara estrapolatzeko modukoa izan behar du.</p>	<p>5.1.1. Ikastetxe batean probatu da, eta esperientzia zabaltzeko aukerak baloratu dira (2008).</p> <p>5.1.2. Probak egiten jarraitu da, eta beste bat abiatu da lurralde bakoitzean (2009).</p> <p>5.1.3. Eskaintza ireki bat egin zaie ikastetxeei, proiektu integralak abian jartzeko (2010).</p>
<p>5.2. Proiektu horiek sustatzeko eta ebaluatzeko erakunde arteko lankidetzaren bultzatzea.</p>	<p>5.2.1. Urteko txostena egin da lurralde-batzordeetan, eta tartean sartuta dauden administrazioei zabaldu zaie.</p>
<p>5.3. Elkarbizitza onuragarria sustatzeko, ikastetxeak giza baliabideak eta baliabide materialak eman behar dituela sentibilizatzea hezkuntza-komunitatean.</p>	<p>5.3.1. Orientabideak eman zaizkie ikastetxeei, elkarbizitza onuragarria izateko bidean aurrera egiteko baliabideak optimizatzeko.</p>

2.3. IKASKUNTZAREN KALITATEA: ESKOLA-ARRAKASTA GUZTIENTZAT

Eskolako hezkuntza-jardueran ikastetxea funtsezko elementutzat hartzeak ondorio ugari ditu: antolaketan eta kudeaketan, funtzionamenduan, irakaskuntza bideratzeko moduan... Baina, batez ere, ikasleen ikaskuntzan eragiten du.

Ikaskuntza irakaslearen eta ikaslearen arteko lantzat hartzearen ikuspuntua gaindituta dago. Irakasteko eta ikasteko prozesuan elkarrekintza ugari dago: irakaslearen eta taldearen edota taldeko kide bakoitzaren artekoa, taldeko ikasleen artekoa, lan-taldeetako edota haien arteko harreman informalak. Elkarrekintza-aniztasun horrek ikaskuntzari heltzeko zenbait modu eskaintzen ditu: norbaitek zerbaiti buruz duen ezaguera komunikatzea baliagarria da, baina are eta baliagarriagoa da zenbait jakintzaren arteko kontrastea; beharrezkoa da helduaren ezaguera, esperientzia eta prestakuntza baliatzea, baina zenbaitetan hobe da berdinen artean ikaskuntza eraikitzen joatea, norberaren jakintza partzialak kontrastatuz. Elkarrekintzak askotarikoak badira, ikaskuntzarako aukerak handiagoak izango dira.

Irakaskuntza ikasgelan bakarka egiten den lantzat hartzea ere gaindituta dagoen ikuspuntua da. Ikastetxean eta ikasgelan zenbait irakasle aritzen dira, eta, eskolatzean zehar, ikasleek denetariko irakasleak topatzen dituzte. Irakaskuntza-lana lan koordinatutzat hartu behar da, taldean egiten dena, eta denon artean bideratutako hezkuntza-proiektuaren baitan dagoena.

» 58

Azkenik, ikastetxea bere ingurunetik banandutako elementutzat jotzea ere gaindituta dagoen ikuspuntua da; ingurune horretan dute jatorria ikasleek, eta bertan aurkitzen dituzte esanahiak. Ingurunean pertsona asko bizi dira eta lan egiten dute, bizipen ugari eta jakintza baliotsuak dituzte, eta bizimodu duinagoa lortzeko itxaropena dute. Ingurune hori ez dute pertsona isolatuek osatzen, itxaropen, arazo eta behar komunak dituzten pertsonen komunitateak baizik. Ingurune horretan kokatzen da ikastetxea, eta bertako lana egiteko beharrezkoa da komunitatearen laguntza, lankidetzeta eta sinergiak baliatzea.

Haurren, nerabeen eta gazteen ikaskuntza, beraz, lan kolektiboa da, eta, lan horretan, ikastetxea funtsezko elementua da. Kalitatezko eskola gaur egungo gizartearen —hau da, informazioaren gizartearen— eskakizunei erantzuten diena da: pertsona guztien prestakuntza, guztiek beharrezko gaitasunak garatzeko, eta guztien lankidetzeta, jakintzaren gizartean beharrezkoak izango diren ikaskuntzak denek bereganatzeko helburuarekin. Indarrak biltzea da eskolan guztiek arrakasta izateko bermerik onena.

» Xede-helburua

Ikaskuntza instrumentalak eta balioen ikaskuntza hobetzea. Horrez gain, ikasleek eskolan dituzten emaitzak hobetzea, ikastetxeak aldatuz, eta, horrela, informazioaren gizartean beharrezkoak diren ahalmenak garatuz.

IKAS-KOMUNITATEEN PROGRAMA

Egungo informazioaren gizartean, ikaskuntza ez dago soilik ikasgelan gertatzen denaren mende; ikasleek zenbait ingurunetan (eskola, familia, auzoa) egiten dituzten ikaskuntzen jarraitutasuna ere kontuan hartu behar da. Beraz, beharrezkoa da eskolaren eginbeharra berriro aztertzea, eta ikastetxeak eta ikasgelak eraldatzea, jarraitutasun hori bermatzeko, eta horrela ikasleek ahalik eta tresna- eta balio-ikaskuntza gehien bereganatzeko. Planteamendu horri jarraiki, nazioarteko zientzia-komunitatea elkarrekintzan oinarritutako ikaskuntzaren ikuspuntua ari da garatzen, ikaskuntza dialogikoa.

Ikaskuntza dialogikoak elkarrekintzak hartzen ditu ardatz, eta haien gain esku hartzea proposatzen du. Baina ez dira kontuan hartzen ikasgelako elkarrekintzak soilik, baizik eta ikasleek parte hartzen duten elkarrekintza guztiak, bai familiarekin, bai kideekin, auzoan... Gaur egun oso zaila da tresnak edo balioak bereganatzeko ikaskuntzetan arrakasta izatea, hurrekin eta gazteekin harremanak dituzten eragile guztiak kontuan hartu gabe, hau da, ikasgelako, ikastetxeko, etxeko eta inguruneko elkarrekintzen artean jarraitutasun bat ez badago.

Zer adierazten dugu kalitatezko hezkuntzaz ari garenean:

- Ikasle guztiek informazioaren gizartean behar diren gaitasunak garatzeko bide ematen duen hezkuntza, eta ikasle guztiek arrakasta izateko tresnak eskaintzen dituen, horrela desberdintasunak gaindituz.
- Europako kalitate adierazleetan, elkarbizitza eta emaitzak hobetzeko ikerketetan eta nazioarteko ebaluazioetan oinarritutako hezkuntza.
- Aniztasuna baliatzen dakien hezkuntza, ikaskuntzak hobetzeko, eta ikasleak askotarikoa, konplexua eta kultura artekoa den gizartean bizitzeko prestatzeko.
- Tresnen eta balioen ikaskuntzak batera lantzen dituen hezkuntza.

» Programaren helburuak

1. helburua. Ikastetxeen aldaketa-prozesuak diseinatzea, industria-gizartetik informazioaren gizartera egondako aldaketarekin bat.

EKINTZAK	ADIERAZLEAK
<p>1.1. Denentzat Kalitatezko Ikas-komunitateen Plana egitea.</p>	<p>1.1.1. Ikastetxeetan denentzat Kalitatezko Ikas-komunitatak ezagutarazteko eta abian jartzeko plan bat egin da, bai eta ikasle guztiek emaitza onak izaten lagunduko duten neurriak hezkuntza-sisteman ezartzeko ere.</p>
<p>1.2. Denentzako Kalitatezko Ikas-komunitateei buruzko biltzarra egitea.</p>	<p>1.2.1. Ikas-komunitateei buruzko biltzar bat egingo da. Irakasleek, familiakoek, elkarteek eta EAeko eta beste autonomia-erkidego batzuetako hezkuntza-komunitateko eragileek parte hartuko dute (2008ko otsaila).</p>

2. helburua. Prestakuntza-prozesuak abian jartzea, eta, ikaskuntza dialogikotik, ikastetxeak aldatzeko saiakuntzak egitea.

EKINTZAK	ADIERAZLEAK
2.1. Ikasle guztiek eskolan emaitza onak izaten lagunduko duten estrategiei buruzko materialak egitea.	2.1.1. Materialak ikastetxeen eskura jarri dira (2008ko ekaina).
2.2. Denentzako Kalitatezko Ikas-komunitateen proiektua beste ikastetxe batzuetara zabaltzea, eta ikastetxeen aniztasuna handitzea.	2.2.1. Irakaskuntzaren kalitatea eta elkarbizitza hobetu nahi duten ikastetxeei Ikas-komunitateen proiektua proposatu zaie, eta garatzeko behar adinako laguntza eman zaie, hobeto moldatzeko gaur egungo gizarteak dituen premietara (10 ikastetxe 2010eko ekainean). 2.2.2. Ikaskuntza-komunitateen proiektua proposatu zaie, eta garatzeko behar adinako laguntza eman zaie, Lehen Hezkuntzan edo Bigarren Hezkuntzan ikaskuntza-komunitateen proiektuaren barruan dagoen ikastetxeren batean jarraipena duten ikastetxeei (15 ikastetxe 2010eko ekainean). 2.2.3. Ikaskuntza-komunitateen proiektua proposatu zaie, eta garatzeko behar adinako laguntza eman zaie, premiaz aldatetak behar dituzten ikastetxeei (10 ikastetxe 2010eko ekainean).
2.3. Ikaskuntza dialogikoari buruzko prestakuntza-modulua egitea.	2.3.1. Ikaskuntza dialogikoari buruzko prestakuntza-modulua egin da (2009), eta ikastetxeei eskaini zaie, Berritzeguneetatik (2010).

3. helburua. Ikaskuntzekin lotura duten elkarrekintzak sustatzeko estrategiak garatzea, gelan, ikastetxean eta ingurunean.

EKINTZAK	ADIERAZLEAK
<p>3.1. Prestakuntza ematea aholkulariei, gai hauei buruz: talde elkarreragileak, irakurketa dialogikoa, literatura-hizketaldiak, liburutegi tutoredunak...</p>	<p>3.1.1. Prestakuntza-saioak antolatu dira aholkulariekin, haien jarduketa-eremuen arabera.</p>
<p>3.2. Geletan metodologia elkarreragileak sartzeko prestakuntza eta aholkularitza ematea.</p>	<p>3.2.1. Ikastetxeek gai hauei buruz dituzten prestakuntza- eta aholkularitza-eskaera guztiei erantzun zaie: talde elkarreragileak, irakurketa dialogikoa, literatura-hizketaldiak, liburutegi tutoredunak... (2010eko ekaina)</p> <p>3.2.2. Material eta proposamen jakinak jarri dira ikastetxeen eskura (2008ko, 2009ko eta 2010eko ekaina).</p> <p>3.2.3. Laguntza-zerbitzuetatik, prestakuntza-jarduerak egin dira, eta, jarduera horien barruan, jardunbide egokien trukeak (2008ko, 2009ko eta 2010eko ekaina).</p> <p>3.2.4. Haien erabileraren jarraipena eta balorazioa egin da, Berritzegune bakoitzeko ikastetxeen lagin batean (2008ko, 2009ko eta 2010eko ekaina).</p>

4. helburua. Gatazken prebentziorako komunitate-eredua garatzea.

EKINTZAK	ADIERAZLEAK
4.1. Gatazken prebentziorako komunitate-ereduari buruzko prestakuntza eta aholkularitza aholkularientzat, irakasleentzat, familiakoentzat eta hezkuntza-komunitateko beste eragile batzuentzat.	4.1.1. Gatazken prebentziorako komunitate-ereduari buruz ikastetxeek egindako prestakuntza-eta aholkularitza-eskaera guztiei erantzun zaie (2010eko ekaina).
4.2 Gatazken prebentziorako komunitate-ereduari buruzko materialak egitea.	4.2.1. Gatazken prebentziorako komunitate-ereduaren prozesuei, estrategiei eta ebaluazioari buruzko materialak jaso eta egin dira.

5. helburua. Hezkuntza-komunitateak hezkuntza-prozesu guztietan parte har dezala bultzatzea.

EKINTZAK	ADIERAZLEAK
5.1. Hezkuntza-komunitateko kideei beharrezko aholkularitza, prestakuntza eta materialak ematea. Zerbitzu horien barruan egotea irakasleen, familien eta gizarte-eragileen talde-lana, bai gelan, bai ikastetxean ere, eskolaz kanpoko ordutegian eta etxeetan.	5.1.1. Eragile guztien talde-lanari buruz ikastetxeek egindako prestakuntza-, material- eta aholkularitza-eskaera guztiei erantzun zaie (2010eko ekaina).
5.2. Ikastetxeko lehenetsuei buruzko prestakuntza bateratua ematea irakasleei, familiei eta gizarte-eragileei.	5.2.1. Beste eragile batzuekin lan egiteko interesa zuten ikastetxeetan egindako prestakuntzetan, beste eragile horiei ere eman zaie parte hartzeko aukera (2008, 2009 eta 2010).

»» 3. ARDATZA

ESKOLA, XXI. MENDEKO GIZARTEAN

Inklusibotasuna eta kalitatea nahasiz, XXI. mendeko eskola –kalitatezkoa eta guztioi zuzendua– eraikitzeak berekin dakar eskola-curriculumari arreta berezia jartzea. Izan ere, eskola-curriculumean ez dira soilik ikastetxeek irakatsi beharreko eduki garrantzitsuak agertzen, batez ere, ikasleen ikasketan lortu beharreko helburuak eta horien nahikotasuna neurtzeko irakasleentzako irizpideak proposatzen baitira.

Euskal curriculum berria aukera egokia da zer eta nola irakasten den hausnartzeko, bai eta ikasleek zer ikasteko premia duten eta nola ikasten duten hausnartzeko ere.

Horretan oinarrituta proposatzen dira 3. ardatzeko lehentasunezko jarduera-ildoak. Honako hauek dira:

- 3.1. Curriculum berria eta oinarrizko gaitasunak.
- 3.2. Teknologia berriak.
- 3.3. Euskal Herriko eta Europako gizarte-esparrua.
- 3.4. Hizkuntzak.
- 3.5. Zientzia-hezkuntza.
- 3.6. Garapen iraunkorra.

Atal horietan jasotzen dira gure ikasleek etorkizunean jakin eta egin beharko dituzten gaien alderdirik nabarmenenak. Horietan guztietan, barne hartzen dira diziplina zientifikoak osatzen dituzten ezagutza berriak, bai eta curriculum-edukiak irakasteko ikuspegi berriak eta horiek ikasiz lortu nahi diren helburuak ere.

Europar Batasunak bultzatu du eskola-hezkuntza ez dadila soilik ikasleen ezagutzak hedatzera mugatu, xedea baita gai akademikoen eta diziplinari buruzko gaien –hots, erabat kognitiboak diren gaien– mugak gainditzea. Modu horretan, beharrezko gaitasunak eskuratuko dira, hezkuntza-etapa bakoitzari dagokion mailan.

Eskola-hezkuntzaren xedea da pertsonak heztea XXI. mendean bizi daitezen. Beharrezko gaitasunak eman nahi ditu nor bere buruaren aurrean jartzeko, besteekin harremanak egiteko, gizartean parte hartzeko eta norberaren nahiz taldearen garapena bultzatzeko. Horretarako, zientziek emandako ezagutzak eta trebetasunak erabiliko dira, eta kontuan hartuko dira giza duintasuna, gizarte demokratikoa eta garapen iraunkorra zein solidarioa zaintzen dituzten balioak.

3.1. CURRICULUM BERRIA ETA OINARRIZKO GAITASUNAK

Curriculum berrian funtsezko urratsa ematen da, eskola-irakaskuntzaren helburuak lortze aldera. Izan ere, lortu nahi da ikasleek —persona, herritar eta profesional diren aldetik— garatzeko beharrezko gaitasunak eskuratzea.

«Gaitasuna» da egoera jakin bat kudeatzeko ezagutzen, jarreraren eta trebetasunen konbinazioa. «Oinarrizko gaitasunak» beharrezkoak dira norbere burua garatzeko, gizarteratzeko, herritar aktibo izateko, enplegua lortzeko eta bizitzako ikasketak eskuratzeko (izaten ikastea, ezagutzen ikastea, egiten ikastea, elkarrekin bizitzen ikastea eta ekiten ikastea).

Gaitasunek esan nahi dute pertsonak gai direla eguneroko bizitzan ideiak ekintza bihurtzeko, nola alor pribatuan hala publikoan. Alde batetik, gaitasun pertsonalak eta sozialak daude. Gaitasun horien bitartez, gure autoestimua eta besteeziko komunikazioa hobetu, gure emozioak kudeatu, eta gatazkak modu eraikitzailean konponduko ditugu. Bestetik, autoikaskuntzarako beharrezko gaitasunak ditugu, eta, horien bitartez, aurre egingo diegu benetako egoera eta arazoei, kritikoki aztertuko ditugu arazo nahiz egoera horiek eta izan ditzaketen konponbideak, eta ezagutzen nahiz zaindu nahi ditugun balioetan oinarritutako erabakiak hartuko ditugu.

Irakaskuntzaren jardunean, aldaketa sakonak eskatzen ditu eskola-hezkuntzaren helburuen ikuspegi honek. Ikuspegi akademiko nagusi batetik ikuspegi funtzionalagora igaro gara; jakintzak dibertsifikatzen dituen diziplinartasunetik, jakintzei batasuna ematen dieten osotasunera, diziplinartekotasunera eta zeharkakotasunera; ebaluazio dibertsifikatutik, ebaluazio integratura. Curriculum-arloen arabera baino, irakasleek jakin behar dute gaitasunen arabera lan egiten, ikasketa soilik ezagutzen mailara bideratu beharrean, maila operatibora bideratuz.

» 66

» Xede-helburua

Curriculumeko gaitasunen ikuspuntuaren ezagutza eta oinarrizko gaitasunen garapena bultzatzea, eta euskal hezkuntza-sistemaren zerbitzuak eta unitateak tartean sartzea, ikastetxeek pixkanaka sar ditzaten, haien jardueren oinarri gisa.

» Lehenasunez garatu beharreko ekintzak

EKINTZAK	ADIERAZLEAK
1. Gaitasunen esparru berria zabaltzeko eta erabiltzeko prestakuntza-plan bat egitea.	1.1. Informazio-material bat egin da, hezkuntza-komunitateari esparru berriaren ezaugarriak jakinarazteko (2007ko iraila). 1.2. Oinarrizko gaitasunei buruzko hedapen-eta prestakuntza-ekintzak eskaintzen dira, Berritzegune guztietan (2008). 1.3. Ikastaroak eskaintzen dira urtero GARATUn.
2. Eremuak/alorrak oinarrizko gaitasunen garapenera egokitzeko ereduak egitea.	2.1. Eremuetan eta alorretan oinarrizko gaitasunak lantzeko eredu berriak jarri dira urtero ikastetxeen eskura, eta eredu horiei buruzko prestakuntza eskaini da.
3. Ikastetxearen Curriculum Proiektua (ICP) egokitzeko gida bat egitea, oinarrizko gaitasunak garatzeko ikuspuntutik.	3.1. ICP egokitzeko gida argitaratu da (2009).
4. Oinarrizko gaitasunei buruzko eztabaida eta hausnarketa bultzatuko duten topaketarako eta esperientzien trukerako sareak eta eremuak sortzea.	4.1. Lan-taldeak eta/edo mintegiak sortu dira, eta jardunbide egokiak zabaltzeko ekintzak egin dira, oinarrizko gaitasunen garapenarekin lotuta.

3.2. TEKNOLOGIA BERRIAK

Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologia sartzek aldaketak eragin ditu kulturen, gizartean eta ekonomian. Aldaketa horien ondorioz, Europako gobernuek apustua egin dute pertsonen informazioa eskuratzearen alde, bai eta pertsona horiek ezagutza hori eraldatzeko gai izatearen alde, bizitza eta elkarbizitza osasungarria izan dezaten. IKT-k txertatzea eta bazterketarik gabeko jakintzaren gizartearen aldeko apustua beharrezko helburua da hezkuntza-sistemen kohesio soziala lortzeko, eta sistema horien kalitatea eta eraginkortasuna hobetzeko. Halaber, hezkuntza tresna nagusi bihurtu dute, jakintza hori sortu eta eratzeko.

Horixe da Euskadi Informazio Gizartean II. Planaren xedea (EIGP II.), erantzuna eman nahi baitio ondo-rengo erronkari: «euskal gizartea aro digital berrira egokitzea, kultura-aldaketa lagunduz eta teknologia berriak pertsona guztien zerbitzura jarritz. Horrela, bizi-kalitate handiagoa eta gizarte-oreka lortuko dira, bai eta balioak eta aberastasuna sortu ere». Hezkuntza Sailak bere egin du helburu hori, eta ahalegin nabarmena egin du zehazteko hezkuntzaren alorrean zein izan behar duten xede hori lortzen lagunduko duten ekintzak.

Hezkuntzan IKT-k gehitzea ikastetxeei ekipamendua eta azpiegiturak ematea baino gehiago da. Beste giza jarduera askotan bezala, teknologia horiek aldaketa garrantzitsuak eragiten dituzte hezkuntza-prozesuetan.



Eskolak hausnarketa egin behar izan du curriculum-edukien gainean, eta, eduki horiek ikasleak informatzera bideratu beharrean, «ikasten ikastera» eta mundu irekiago batean kokatzera bideratu ditu, bai eta irakaskuntzako jardunbide ugari aldatzera ere. Irakasleek beharrezko baliabide eta tresnen erabilera errazten diete ikasleei, azken horiek jakintza eta trebetasun berriak landu ditzaten eta bizitzarako oinarritzko gaitasunak gara ditzaten. Ikasleek paper aktiboagoa dute ikasketa-prozesuan, behartuta baitaude jasotako informazioa hautatzeko gaitasuna garatzera, informazio hori aztertzerako, bai eta jakintza bihurtzeko egiaztatzerako.

Ikasketaren jokalekuan, funtzio eta profil berriak agertu dira: ikasgelan IKT-tresnak darabiltzaten irakasleak; elkarrekintza handitzen duten didaktikak; ikasitako fenomenoaren simulazioa; informazioa jaso, hautatu eta prozesatzea; tutoretza-funtzioa eta aholkularitza- zein orientazio-funtzioa, eta ikasleen lanaren etengabeko prestakuntza-ebaluazioa. Teleprestakuntzaren aukerak baliatu beharko dira, eta aplikazioak garatu beharko dira gainerako gizarte-eragileekin —familiekin, bereziki— elkartzeko, horrek mesede egingo baitio seme-alaben hezkuntzari.

Irakasleek honako ezaugarri hauek bete behar dituzte: sarean modu sortzaile eta hautakorrean mugitzeko gai izango dira; multimedia-produktuak egiteko gaitasuna garatu behar dute; leku birtualetan esku hartuko dute; hitzaldietan parte hartuko dute, eta sareko proiektuak garatu, eta horrelako proiektuetan elkarlanean arituko dira. Teknologia berriak baliotsuak izan daitezke hezkuntza-lanean, horiei esker prozesuak malguagoak eta pertsonalizatuak izan, eginkizuna deszentralizatu, eta komunikazio-sare bati esker koordinatu baitaitezke.

» Xede-helburua

Hezkuntzan parte hartzen duten eragileek bitarteko digitalak guztiz aprobetxatzea, ikastetxeen kudeaketa pedagogikoan eta administrazio-kudeaketan erabil ditzatela sustatzea, eta, horrela, ekintza guztietan koordinazioa eta koherentzia egongo dela bermatzea.

INFORMAZIOAREN ETA KOMUNIKAZIOAREN TEKNOLOGIEN PROGRAMA

Hezkuntza-sistemak aurre egin behar dio erronka berri bati: hezkuntza-komunitateak bitarteko digitalak erabat baliatzeari. Horretarako, IKT-programak aurreko etapetan garatutako ildoarekin jarraituko da, eta 2010. urterako Europako ekimenak txertatuko dira, bai eta, hezkuntzaren alorrean, Lisboako estrategia ere.

Programa honen bitartez, sareen sorrera sustatu nahi da, parekoen arteko prestakuntza, jardunbide onen transmisioa eta lan kooperatiboa lortze aldera. Horretarako, beharrezkoa da hezkuntza-plataforma bat izatea; hots, ingurune integratu bat behar da, eta haren barruan sartuko dira teleprestakuntza-sistemak, on line aholkularitza, elkarlanerako eta talde-lanerako sistemak, prestakuntza-eduki federatuen apala, elkarte birtualak, bideokonferentziarako eta LTD hezigarrirako baliabideak, prestakuntzarako urrutiko laguntza-sistemak... Horiek guztiak hezkuntzaren alor eta maila guztietara egokituko dira. Ildo horretatik, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak sustatzen du IKT-en aukerak baliatzen dituzten hezkuntza-materialen ekoizpena, erkidegoko ikastetxeetako irakasleek curriculumak garatzeko.

Teknologia berriak prestakuntzan txertatuko dira, baina ez soilik ikasi beharreko edukiak edo lortu beharreko trebetasunak diren aldetik. Programa honen xedea da teknologia berriak gero eta gehiago erabiltzea, prestakuntzaren zerbitzura dagoen komunikabideak baitira; hots, irakaskuntza-ikasketa prozesuak gauzatzeko inguruneak baitira.

» Programaren helburuak

1. helburua. IKT ikastetxeek ziurtagiria izateko aukera ematea, «IKT Ikastetxe-Eredua» kontuan hartuta.

EKINTZAK	ADIERAZLEAK
1.1. IKT Ikastetxeen Heldutasun-Eredua egitea, ikastetxeen diagnostikoa etapaka egiteko.	1.1.1. IKT Ikastetxeen Heldutasun-Eredua egin da etapaka (2007).
1.2. Irakasleen profil bat zehaztea, eta prestakuntza-planak egitea, aro digitaleko hezkuntza-errealitate berrira egokitzeko.	1.2.1. Irakasleen profila egin da, eta prestakuntza-ekintzak identifikatu dira, irakasleak aro digitaleko hezkuntza-errealitate berrira egokitu daitezten (2007).
1.3. Jarduera-planak diseinatzen eta abian jartzen laguntzea, IKT Ikastetxeen Heldutasun-Eredua lortzeko.	1.3.1. Jarduera-planak abian jartzeko aholkularitza-eskaerei erantzun zaie.

2. helburua. Ekintzak sustatzea, hezkuntza-komunitateko zulo digitala txikiagotzeko.

EKINTZAK	ADIERAZLEAK
<p>2.1. IKT tresnak bateratzeko eredu bat egitea, tresna horiek erabiltzen errazago ikasteko.</p>	<p>2.1.1. IKT tresnak bateratzeko eredu bat egin da (2008).</p>
<p>2.2. Hezkuntza Sailak sustatutako hezkuntza-plataformen —www.elkasi.net, www.eGaratu.net, www.eMintegi.net, www.berrikuntza.net, www.elkarrekin.org, www.eDukiak.net— erabilera sustatzea, eta plataforma horien erabilera zabalduko eta bultzatuko duten prestakuntza-planak egitea.</p>	<p>2.2.1. Hezkuntza Sailak sustatutako hezkuntza-plataformei buruzko prestakuntza-jarduerak egin dira.</p> <p>2.2.2. Ikastetxe batzuek hezkuntza-plataformak erabiltzen dituzte kudeaketa pedagogikorako eta administrazio-kudeaketarako.</p>
<p>2.3. Azterketa eta jarraipena egitea, ospitaleratutako ikasleek edo gaixotasun luzeak dituztenek telematika bidez jaso ditzaten eskolak, eta hezkuntza-eduki digitalak eskura ditzaten urritasunen bat dutenek.</p>	<p>2.3.1. Prestakuntza-ekintzak gauzatu dira, berriazko irakasleak erabiliz, ospitaleratutako ikasleak, gaixotasun luzeak dituztenak edo urritasunen bat dutenak integratzen laguntzeko.</p> <p>2.3.2. Zenbait ikastetxek zerbitzu hori eskaintzen diete ospitaleratutako ikasleei, gaixotasun luzea dutenei eta urritasunen bat duten pertsoneri.</p>
<p>2.4. Hezkuntza-komunitateari sarean arreta etengabea emateko, ikastetxeen antolaketa-eredu bat egiten laguntzea.</p>	<p>2.4.1. Antolaketa-eredu bat egin da, arreta etengabea emateko (2008)</p>

3. helburua. Hezkuntza-eduki digitalen garapena sustatzea, hezkuntza-komunitatearen eskura jartzeko, sarearen bitartez.

EKINTZAK	ADIERAZLEAK
3.1. Sailaren plataformetan sartuko diren hezkuntza-eduki digitalek bete behar dituzten irizpide bateratuak egitea.	3.1.1. Irizpideak ezarri dira, eta hedatu egin dira (2007).
3.2. Prestakuntza-planak egitea, eduki digitalen eraketa bultzatzeko.	3.2.1. Prestakuntza-jarduerak egin dira.
3.3. Gelan hezkuntza-eduki digitalak erabiltzeko aukerak zabaltzea.	3.3.1. Ekintzak egin dira, hezkuntza-eduki digitalen gelako erabilera zabaltzeko, eta zabalkunde horren jarraipena egin da, hezkuntza-eduki digitalen sarbideak eta beherakargatzeak kontrolatuz.
3.4. Protokolo bat egitea, eduki digitalak aztertzeke eta probatzeko.	3.4.1. Eduki digitalak aztertzeke eta probatzeko prozedura bat jarri da ikastetxeen eskura (2007).

4. helburua. Hezkuntza-komunitatean software librearen eta kode irekiko softwarearen erabilera sustatzea.

EKINTZAK	ADIERAZLEAK
<p>4.1. Software librea irakaskuntza-premietara egokituta erabiltzeko aukera emango duten ekimenak abian jartzea.</p>	<p>4.1.1. Ikastetxeetan instalatutako software libreko aplikazioak eta programak.</p>
<p>4.2. Sailaren bilduman, irakaskuntzarako balio duten software libreko programak daude, eta prestakuntza-jarduerak egingo dira, programa horiek erabiltzeko gai izateko.</p>	<p>4.2.2. Software libreko programak daude irakaskuntzako bilduma erabilgarrian, eta programa horien hedapenaren jarraipena egin da, behera kargatutako programak kontrolatuz.</p> <p>4.2.3. Prestakuntza-jarduerak egin dira.</p>
<p>4.3. Software libreko aplikazioen erabilera-eskuliburuak egitea/egokitzea.</p>	<p>4.3.1. Aplikazioak erabiltzeko eskuliburuak egin dira.</p>

3.3. EUSKAL HERRIKO ETA EUROPAKO GIZARTE-ESPARRUA

Internazionalizazio-fenomenoen eta, bereziki, Europako esparru sozio-politikoaren eskarien ondorioz, al-daketak gertatzen dira, eta hezkuntza-sistemaren ardura da aldaketa horiek kontuan hartzea.

Egungo munduak aukera ugari eskaintzen du kulturen arteko elkarrekintzarako. Nortasun kulturala etengabeko eraikuntza-prozesua da, eta oinarrian hartu behar ditu norberaren nortasunaren balioak eta kultura artekotasuna. Beste edozein nortasun kolektibo bezala, euskal kultura ere ez da monolitikoa, askotarikoa baizik, eta norberaren sormena eta askatasuna bultzatzeko balio du. Gertakari ahistorikoa edo egonkorra ere ez da, eraikitzen ari baita etengabe; eta ez dakar itxierarik, aitzitik, mundura irekitzeko abiapuntua da. Ikuspegi horretatik, eskola inklusiboak ahalegina egiten du haurren eta gazteen prestakuntzan, Euskal Herriaren eta haren gizarte-, lurralde- eta kultura-aniztasunaren ezagutza sakona bermatzen baitu. Europar Batasuneko kidea ere badenez, haren eta bere aniztasunaren ezagutza ere bermatzen ditu, bai eta horrek berekin dakartzan testuingurunea (kultura, hizkuntza eta gizarte-elkarrekintza) ere. Horrek guztiak bultzatzen du guztionak diren oinarri historiko eta kulturei buruzko ezagutzak partekatzerara.

Zalantzarik gabe, lan horri heltzeko norberak bere herriarekiko duen ezagutza-ondaretik —euskal kulturen oinarrietatik— abiatu behar da, horixe izango baita modu bakarra gure ikasleak hazi eta aktibo izateko, bai eta partaide eta erabat europar sentitu, eta dimentsio europarra onartu eta nork bere gain hartzeko ere. Izan ere, Europa kultura-nahastea da, eta horrek ez du berdin eragiten pertsona guztiengan. Hortaz, ikasleak eta, oro har, hezkuntza-komunitate guztia prestatuko dira, ondorengo baldintzak betetzeko:

- Herritartasun demokratikoaren (aktiboa, kritikoa, ingurumenarekiko arduratsua, aniztasunarekiko adeitsua eta gizarte-ekitatearen defendatzailea) eragileak izateko, elkarbizitza eta gizarte-ongizatea bermatze aldera.
- Euskal kultura-ondarearekin batera, laguntzeko nortasunetan aberatsa, askotarikoa eta harmoniatsua den Europa itxuratzen.
- Europar Batasuneko hezkuntza-sistemek beharrezkotzat hartutako ezagutzak eta oinarrizko gaitasunak ikasi eta garatzeko, erabat gizarteratu daitezen.

Horretarako, beharrezkoa da:

- Curriculumaren euskal dimentsioaren osagarri nagusiak ageriko eta ikusgarri egitea.
- Euskal osagai eta gertakari sozio-kulturalak zuzen txertatzen ikastea, estatu- eta Europa-mailako ikuspegietan. Horrela, formulazio harmonikoak eraiki ahal izango dira, dimentsio guztien artean partekatutak.

- EAEko ikastetxeetan, Europako hezkuntza-ekimenak zabaltzea eta, ekimen horietan, ikasleen parte-hartzea sustatzea.
- Euskal eta europar dimentsioa curriculumean, curriculum-materialetan, ikastetxeen hezkuntza-proiektuetan eta ikasleen ebaluazioan sartuko direla zaintzea.

» Xede-helburua

Hezkuntza-zereginen euskal ezaugarriak zabaltzea, sustatzea eta ezaugarri horiek sartzeaz arduratzea, Europako Kontseiluko hezkuntza-ekimenak betetzea, eta hezkuntza-komunitateak ekintza- eta prestakuntza-jardueretan parte har dezala sustatzea, bai Euskal Autonomia Erkidegoan, bai Europan ere.

» Lehenetsunez garatu beharreko ekintzak

EKINTZAK	ADIERAZLEAK
<p>1. Curriculum-materialak egitea Haur Hezkuntzarako, Lehen Hezkuntzarako eta Bigarren Hezkuntzarako, curriculumean euskal ezaugarriak ikusteko, batez ere Gizarte Zientzietan, Geografian, Historian, Musikan eta Artean.</p>	<p>1.1. Plan bat egin da (2007ko iraila). 1.2. Materialak argitaratu eta ikastetxeen eskura jarri dira, aurretik finkatutako planaren arabera. 1.3. Urtero prestakuntza eman zaie, material horien erabilerari buruz.</p>
<p>2. Ebaluazioak egitea, curriculumean, curriculum-materialetan, ikastetxeen hezkuntza-proiektuetan eta ikasleen ebaluazioan euskal eta europar ezaugarriak sartuta dauden mailari buruz.</p>	<p>2.1. Ebaluazioak egin dira, eta emaitzak argitaratu dira (2010).</p>
<p>3. Jarduera-gida edo –protokolo bat egitea, gainerako jarduera-eremuetan europar ezaugarrien garapen koordinatua egoteko, eta gida edo protokolo horren prestakuntza ematea Berritzeguneko aholkulariei eta Hezkuntza Saileko beste teknikari batzuei.</p>	<p>3.1. Gida egin da (2008ko martxoa). 3.2. Prestakuntza eman zaie Berritzeguneko aholkulariei eta beste teknikari batzuei (2008).</p>
<p>4. Euskal eskolen mugaz haraindiko sarea sortzea.</p>	<p>4.1. Sarea osatuta dago, eta jardueren egutegi bat du (2010eko ekaina). 4.2. Urteik urtera partaidetza handiagoa izaten da.</p>
<p>5. Irakasleek, ikasleek eta hezkuntza-tek-nikariek Europako jardueretan (ekintza eta prestakuntza) parte har dezatela sustatzea.</p>	<p>5.1. Informazio-bisitak egin dira urtero ikastetxeetara. 5.2. Dibulgaziozko argitalpenak egin dira aldian-aldian (on line). 5.3. Urteik urtera handitu egiten da etwinning sareko eta European Schoolnet-eko beste jarduera ba-tzuetako partaidetza-indizea. 5.4. Nazioarteko prestakuntza-aukeretan urtero egoten den aprobetxamendu-indizea esleitutako aurrekontuaren % 80 baino handiagoa da. 5.5. Bigarren Hezkuntzako ikasleen hizkuntza-prestakuntzarako beken urteko aprobetxamendu-indizea esleitutako aurrekontuaren % 100ekoa da. 5.6. Ikastetxeek egindako eskaera guztiei erantzun zaie.</p>
<p>6. Nazioarteko eta Europako Orientazioa (NEO) duten Institutuetarako Plana egitea.</p>	<p>6.1. Institutuetarako plana egiteko gida-eredu bat dago (2008ko urtarrila). 6.2. 10 institutuk osatzen dute NEO sarea, eta haien plana dute (2010eko ekaina). 6.3. ELOS ebaluazioaren parametroak betetzen dira.</p>

3.4. HIZKUNTZAK

Hizkuntzak irakatsi eta ikastea izan da eskolak edozein etapa eta ikusmoldetan izandako erronka nagusietako bat. Hizkuntzaren zientziek nahiz proposamen didaktiko berriek —heine handi batean, Hizkuntzen Europako Erreferentzi Esparru Bateratuan daude jasota— berresten dute beharrezkoa dela gure ikaste-txeetan aurre egitea bi hizkuntza ofizialen presentziari, bai eta hainbat atzerriko hizkuntzaren eta gero eta ama-hizkuntza gehiagoren presentziari ere. Zalantzarik gabe, eskolak erantzukizuna du erronka berri horiei erantzuteko.

Hizkuntza funtsezko faktorea da giza garapenaren bi dimentsioetan: dimentsio indibidualean nahiz gizarte-dimentsioan. Dimentsio indibidualean, tresna horren bitartez pertsona bakoitzak adierazi, pentsatu, ezagutzera eraldatu eta norberaren jarduera erregulatu baitezake. Eta, dimentsio sozialean, giza taldeak hizkuntza ardatz eta euskarrizat duten jardueretan eraiki eta garatzen baitira. Kultura sortzeko eta oinarritzeko tresna da hizkuntza, komunikatzeko, mundua adierazteko, gizarteratzeko nahiz sentimenduak adierazteko tresna baita, bai eta talde-lanerako, zientzia-garapenerako eta jarduera ekonomiko zein komertzialerako tresna ere.

Testuinguru horretan —eta hiztun gehien dituzten hizkuntzen boterearen logika ekonomikoak kontuan hartuta—, nahitaezkoa da kultura- eta hizkuntza-aniztasuna zaintzea, bai eta hizkuntzen homogeneizate- eta ordezkapen-prozesuak saihestea ere. Izan ere, pertsonen artean ulertzeko bidea izateaz gain, hizkuntzak dira komunitateen nortasun-ikur nagusiak, mundua ulertzeko moduen adierazpena eta gizon-emakume guztien ondarea. Horrek ez du galarazten aitortzea —aitzitik, hori egitera bultzatzen du— gure hezkuntza-sistemako hizkuntzak elkarbizitzako sistema pluralaren zatiak direla eta bata bestearen mende daudela, eta funtsezkotzat jotzen da hezkuntza-prozesuak sustatzea, ikasleen hizkuntza-gaitasunaren garapena hobetze aldera.

Euskal Autonomia Erkidegoan bi hizkuntza ofizial daude: euskara eta gaztelania. Hori dela-eta, eskolak gizarte-konpromisoa hartu du derrigorrezko eskolatze-aldiaren amaieran ziurtatzeko ikasle guztiek bi hizkuntzen ezagutza praktikoa eta akademikoa izango dutela. Hala ere, kontuan hartuko du euskarak, bertako hizkuntzak, arreta berezia behar duela, hizkuntza gutxitua baita.

Informazioaren eta komunikazioaren mundu globalizatuan, gehitu behar da global deitutako hizkuntzaren bat edo hainbat ikasteko beharra, herritar eleaniztunak eratzeko ikuspegi saihestezinean jartzen baitu horrek eskola.

Ez dira Hizkuntzako irakasleak xede horretarako konpromisoa duten bakarrak, eskola-erakunde osoak esku hartzen baitu. Irakasle guztiek dute erantzukizuna ikasleei jakintza-alor guztietan zentzuzko ulermena eta adierazpen egokia ziurtatzeko. Horregatik guztiagatik, funtsezkotzat hartzen da ikastetxean erabilitako hizkuntzen irakasleen eta gainontzeko curriculum-alorretako irakasleen arteko taldeko lana.

» Xede-helburua

Ikastetxeek inguruko eta ikastetxeko testuinguru soziolinguistikora egokitutako hizkuntza-proiektuak egiten jarraitzea, eta, proiektu horietan, euskararen erabileraren normalizazioa, hizkuntzen trataera bateratua eta ikasleen hezkuntza eleanitza kontuan izatea.

HIZKUNTZEN TRATAERA BATERATUAREN PROGRAMA

Ikasle gehienak eleaniztunak dira jada, eta gertakari horrek ikasleen hizkuntza-ezagutzarekiko aurrez aurre kokatzera behartzen ditu irakasleak, irakasteko moduak berriz pentsatzera eta egokitzera, eta, bereziki, Hizkuntzen Trataera Bateratuari arreta berezia jartzera.

Hizkuntzak curriculumean bateratuta irakastea hainbat ebidentziaren ondorioa da. Alde batetik, ikasle elebidun edo eleaniztunak hainbat hizkuntza eta haietan ikasitako ezagutzak ditu une oro, bere dotazio kognitibo eta emozionalaren baitan. Bestetik, transferentzia-prozesuak oinarrizkoak dira giza adimenean, hizkuntzak aldi berean hor daude ikasleek parte hartzen duten inguruneetan (familia, ikastetxea, ingurune birtuala, taldea...), eta hein handi batean antzekoak egiten dituzten ezaugarriak dituzte. Egiaztapen horiek aski dira bakoitzari dagokiona emateko beharra zehazteko, eta hizkuntza guztietan bat datorrena partekatzeo, betiere hizkuntza bakoitzaren erabilera egokiaren zerbitzura.

Hala ere, irakasleen oinarrizko prestakuntza ez da nahikoa Hizkuntzen Trataera Bateratuari (HTB) aurre egiteko, eta ez dago behar adina material teoriko eta praktikoa bermatzeko egokitze epistemologikoa nahiz esku-hartze didaktikoa. Hori dela-eta, arreta berezia jarri behar zaio bi faktoreak ebazteko baliagarriak diren tresna eta dokumentuak landu eta biltzeari, irakasleen prestakuntza indibidualari, eta ikastetxeetan lan-talde kooperatiboak sustatzeari.

Beste ikuspegi batetik, ikastetxeko arau orokorrak hezkuntza-proiektuan eta curriculum-proiektuan jasotzen diren bezala, beharrezkoa da hizkuntza-proiektua egitea. Bertan jasoko dira egungo errealitate elebidunean eta etorkizuneko errealitate eleaniztunean hizkuntzek izan beharreko presentziari eta erabilerari buruzko antolakuntza-irizpideak. Gainera, bertan azalduko dira hizkuntzen irakaskuntzari eta beste curriculum-edukiak transmititzeko hizkuntzen erabilerari buruzko printzipio metodologikoak. Ikasle alofonoek ikastetxean hizkuntza-irakaskuntza errazteko orientazioen beharra nabarmentzen da bereziki, orientazio horiek haurrak gizartean nahiz eskolan integratzeko tresna bihurtu daitezten.

Azkenik, ikastetxeko hizkuntza proiektuak esparru egokian eratu behar dira, curriculumeko Hizkuntzen Trataera Bateratuari aurre egiteko; eta ez da ahaztu behar, bertan txertatu behar direla Hizkuntza Normalkuntzarako Proiektuak.

» Programaren helburuak

1. helburua. Hizkuntzen Trataera Bateratua, hizkuntza-normalkuntza eta hezkuntza eleanitza kontuan izango dituzten ikastetxeko hizkuntza-proiektuak egin ditzatela bultzatzea, eskola barne-hartzailearen ikuspuntutik.

EKINTZAK	ADIERAZLEAK
1.1. Ikastetxeko hizkuntza-proiektua egitearekin lotura duten orientabideak, ereduak eta materialak egitea.	1.1.1. Ikastetxeko hizkuntza-proiektua egiteko orientabideak (2008), ereduak (2009) eta materialak (2009) daude. 1.1.2. Hizkuntza-proiektua egiteko jaso diren aholkularitza-eskaeren % 75i erantzun zaie.
1.2. Kultura arteko Hezkuntza Programarekin koordinazioan, ikasle etorri berria barneratzeko eta hizkuntza-errefortzua jasotzeko materialak egitea.	1.2.1. Ikasle etorri berriak barneratzeko eta hizkuntza-errefortzua jasotzeko materialak egin dira (2010).

2. helburua. Hizkuntza-dukien eta hizkuntzaz kanpoko dukien sekuentziazio adosturako esparrua izatea Lehen Hezkuntzarako, eta hizkuntza-dukiena Bigarren Hezkuntzarako, Hizkuntzen Europako Erreferentzia Markoarekin eta eskola barne-hartzailearen printzipioekin bat.

EKINTZAK	ADIERAZLEAK
<p>2.1. Hizkuntza-dukia hizkuntza ofizialen eta gutxienez atzerriko hizkuntza baten artean sekuentziazteko eta banatzeko irizpideak aztertzea eta garatzea, Lehen Hezkuntzan eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan.</p>	<p>2.1.1. Aztertutako eta garatutako sekuentziazio-irizpideak dituzten orientabideak daude, bai Lehen Hezkuntzarako, bai Bigarren Hezkuntzarako ere (2008).</p>
<p>2.2. Hizkuntza-dukia (testu-generoak eta azpigaitasunekin lotutako dukia) hizkuntza ofizialen eta gutxienez atzerriko hizkuntza baten artean nola banatuta dauden aztertzea, Lehen Hezkuntzan eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan.</p>	<p>2.2.1. Orientabideak, testu-generoen sekuentziazio-proposamenak eta dukien banaketak daude hiru hizkuntzetan, gaitasun bakoitzari lotuta, bai Lehen Hezkuntzan, bai Bigarren Hezkuntzan (2008).</p>
<p>2.3. Hizkuntza ofizialetan eta gutxienez atzerriko hizkuntza batean dauden hizkuntzaz kanpoko dukien banaketa aztertzea, Lehen Hezkuntzan.</p>	<p>2.3.1. Curriculumeko dukia hizkuntza ofizialetan eta lehenbiziko atzerriko hizkuntzan banatzeko orientabideak eta proposamen bat daude, Lehen Hezkuntzarako (2008).</p>

3. helburua. Lehen Hezkuntzako (hizkuntzak eta curriculum-alorrak) eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetako (hizkuntzak) unitate didaktikoak probatzea, eta norberak bere unitateak egin eta molda ditzala sustatzea, hezkuntza-jardunbide egokiak bultzatzeko.

EKINTZAK	ADIERAZLEAK
<p>3.1. Hainbat adibide egitea Lehen Hezkuntzarako eta Bigarren Hezkuntzarako, dagokion sekuentziario-esparruan jasotako irizpideei jarraituz.</p>	<p>3.1.1. Behar adina adibide egin eta banatu zaizkie ikastetxeei, Lehen Hezkuntzako ziklo oso baterako eta Bigarren Hezkuntzako maila oso baterako eta testu-mota jakin baten garapen bertikalerako (2009) .</p>
<p>3.2. Egindako unitate didaktikoak probatzea.</p>	<p>3.2.1. Unitate didaktiko bateratuak probatzea, egokitzea eta/edo egitea eskatu duten ikastetxeen aholkularitza-eskaerei erantzun zaie.</p>
<p>3.3. Ikastetxeetan Hizkuntzen Trataera Bateratua landuko duten irakasle-taldeak sor daitezzen, orientabideak idaztea.</p>	<p>3.3.1. Orientabideak egin dira, Hizkuntzen Trataera Bateratua landuko duten irakasle-taldeak sortzeko (2008).</p>
<p>3.4. Lan-adibideak eta –proposamenak aztertzea, eta, behar izanez gero, egokitzea, eskola barne-hartzailearen, irakaskuntza eleanitzaren eta hizkuntza-normalkuntzaren ikuspuntutik.</p>	<p>3.4 .1. Programatik sortu den materialak kontuan hartu ditu eskola barne-hartzailearen, irakaskuntza eleanitzaren eta hizkuntza-normalkuntzaren printzipioak.</p>

4. helburua. Hizkuntzen irakasleen prestakuntza lanbide-premia berrietara egokitzea.

EKINTZAK	ADIERAZLEAK
4.1. Prestakuntza-plan bat diseinatzea, irakasleari hizkuntza-proiektua egiten irakasteko.	4.1.1. Hizkuntza-proiektua egiteko prestakuntza-plana aurkeztu da (2007ko abendua).
4.2. Prestakuntza-plan bat diseinatzea, irakasleari Hizkuntzen Trataera Bateratua garatzen irakasteko (Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza).	4.2.1. DBHn Hizkuntzen Trataera Bateratua garatzeko prestakuntza-plana aurkeztu da (2007ko abendua).
4.3. Prestakuntza-plan bat diseinatzea, irakasleei Hizkuntzen Trataera Bateratua eta hizkuntzaz kanpoko alorrak garatzen irakasteko (Lehen Hezkuntza).	4.3.1. Lehen Hezkuntzan Hizkuntzen Trataera Bateratua eta hizkuntzaz kanpoko alorrak garatzeko prestakuntza-plana aurkeztu da (2009).

» Garatu beharreko beste zenbait ekintza

EKINTZAK	ADIERAZLEAK
<p>1. Atzerriko hizkuntzen irakasleentzako prestakuntza-planak egitea, hizkuntzen irakaskuntza-ikaskuntzari buruz hezkuntza-jardunbide egokiak finkatzen laguntzeko.</p>	<p>1.1. Prestakuntza-jarduerak eskaini dira urtero, atzerriko hizkuntzen ikaskuntzarekin lotutako jardunbide egokien hedapenerako jarduerak barne.</p>
<p>2. Hezkuntza-etapetan atzerriko hizkuntzak irakasteko metodologia-orientabideak jasoko dituen dokumentu bat egitea eta zabaltzea, Hizkuntzen Europako Marko Bateratuaren printzipioak kontuan hartuz.</p>	<p>2.1. Dokumentua egin eta hedatu da (2008).</p>
<p>3. Irakaskuntza eleanitzean parte hartzen duten irakasleek egindako materialen bilketa, hedapena eta erabilera bultzatzea.</p>	<p>3.1. Atzerriko hizkuntzako materialen bilduma bat dago, curriculumeko hainbat alorretan erabiltzeko.</p>
<p>4. Hizkuntza Normalkuntzarako Ulibarri Programan sartuta dauden ikastetxeen koordinazioaren eta aholkularitzaren plangintza egitea, eta eskatzen dituzten mintegi eta sakontze-ikastaroei erantzutea.</p>	<p>4.1. Eskaeren % 90i erantzun zaie.</p>
<p>5. Hizkuntza Normalkuntzarako Ulibarri Programa ikastetxe gehiagotara zabaltzea.</p>	<p>5.1. Urtero 10 ikastetxe berritara zabaldu da Programa.</p>
<p>6. Hizkuntza Normalkuntzarako Ulibarri Programaren ebaluazioa egitea, 323/03 Dekretuari jarraituz.</p>	<p>6.1. Ebaluazioa egin da.</p>

3.5. ZIENTZIA-HEZKUNTZA

XXI. mendearen hasieran, berretsi da zientzia-hezkuntza hobetzea garrantzitsua eta premiazkoa dela. Guztiok dakigu aurreko mendetik gertatzen ari den garapen zientifikoak eragin handia izan duela eta izango duela gizateriarentzako oso gai garrantzitsuetan, besteak beste, osasunean, elikaduran, energia-baliabideetan, ingurumenaren zaintzan, garraioan, komunikabideetan eta informazioaren teknologietan, bai eta gizakien bizi-kalitatean eragiten duten beste faktore batzuetan ere. Prozesu zientifikoaren eta teknologikoaren aplikazioak erabakitzean dauden arriskuak ere ezin dira ezkutatu.

Zientzia-hezkuntza terminoa orokortu egin da, eta adierazten du herritarren gutxieneko jakintzen multzoa, osagarri tekniko garrantzitsuko erabaki etiko-politikoetan nahasitako oinarritzko argudio zientifiko eta teknikoak ulertzeko: giza klonazioa, ur-erreserben kontsumo iraunkorra, lurreko komunikazio-sareen hedapena, elikagai transgenikoak... Herritarrak egungo nahiz etorkizuneko gizarterako prestatu nahi baditugu, funtsezkoa da jakintza zientifikoaren oinarria ematea. Zientziak irakasteak berekin dakar haur eta gazteei laguntzea kultura horretaz jabetzen, hori beren jardueran erabiltzen jakiten eta hori bilatzeko nahia sortzen. Erronka da hezkuntzaren bitartez ikasleei laguntzea kultura zientifikoan bezala egiten, pentsatzen eta hitz egiten, eta, aldi berean, ikastea beste hizkuntza batzuetan pentsatzen eta hitz egiten.

Zientziaren, teknologiaren eta gizartearen artean harreman ona eta iraunkorra egon dadin, herritar guztiak behar adinako prestakuntza eta kultura zientifikoak izan beharko dute, jarrera arduratsuak hartzeko, oinarritutako erabakiak hartzeko eta eguneroko arazoak konpontzeko. Horretarako, errespetuzko jarrera azaldu beharko da beste pertsonetara, ingurunearekiko eta etorkizuneari bertan biziko diren belaunaldietara.

Horrek gaitasun zientifikoaren garapenean oinarritutako ikuspegia dakar berekin: problemen planteamendua, hipotesiak adieraztea, talde-lanaren bidezko elkarrekintza, ekimena, azalpenak adieraztea (argudioak eta elkarrizketa), beste pertsonen ideietara errespetua... Lan egiteko modu horren bitartez suspertzen da matematika-gaitasunaren erabilera eta hizkuntzak jakitea.

Hezkuntza-sistemaren ikerketa eta ebaluazioek erakusten dute gure ikasleek gabeziak dituztela gaitasun zientifikoak menderatzeko, eta ez dutela zientziarekiko eta teknologiarekiko interesik. Horrez gain, emakumezko ikasle gehienentzat zientzia eta teknologia arrotzak dira dituzten interes-alorreko, emakumezkoen estereotipoaren inposizioagatik, bai eta zientzia eta teknologia aurkezteko moduagatik ere. Egoera hori aldatzeko ezinbestekoa da arreta berezia ematea ikasgelako prozesuei; hau da, esleitutako metodologia eta baliabideei, irakasleen prestakuntzari eta ikasgelan duen praktikari. Hori guztia berrikuntza- eta ikerketa-eginkizunekin lotu behar da, beharrezko aldaketak gertatzeko, ikasleentzako kalitatezko irakaskuntza- eta ikasketa-prozesuak ziurtatze aldera.

» Xede-helburua

Hezkuntza-maila guztietan zientzia-gaitasunak garatzen laguntzea, irakasleak eguneratuz eta prestakuntza etengabea emanez, bai eta berrikuntza didaktikoa bultzatuz ere.

» Lehentasunez garatu beharreko ekintzak

EKINTZAK	ADIERAZLEAK
<p>1. Derrigorrezko maila guztietako irakasleei prestakuntza eta aholkularitza eskaintzea, IKTak lan-tresna dituzten laborategiko materialen ekipamenduak behar bezala erabiltzeko.</p>	<p>1.1. 30 ikastetxetan eman da urtean prestakuntza eta aholkularitza.</p>
<p>2. GARATUren bitartez, aholkularitza eta prestakuntza eskaintzea hezkuntza-maila guztietako zientzia alorreko irakasleei.</p>	<p>2.1. Zientzien ikastaroak, mintegiak... eskaintzen dira urtean, hezkuntza-maila guztietan.</p>
<p>3. Curriculum-material idatzien eta digitalen bilketa egitea eta material horiek natura-zientzietako jarduera praktikoeekin egitea, derrigorrezko irakaskuntzako mailetan.</p>	<p>3.1. Ziklo hauetarako materialak daude: — Lehen Hezkuntzako 3. zikloa (2008ko urtarrila). — DBH (2009). — Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. zikloa (2010).</p>
<p>4. Zientzia-hezkuntza bultzatzen duten erakundeekin elkarlanean aritzea, eta akordioak ezartzea haiekin, ikastetxeetan esperientzien tutoretzak egiteko.</p>	<p>4.1. Lankidetzak-akordioak ezarri dira, eta esperientziak garatu dira ikastetxeetan.</p>
<p>5. Urtero jardunaldiak antolatzea, jardunbide egokiak zabaltzeko zientzia-hezkuntzaren alorrean.</p>	<p>5.1. Jardunbide egokiak zabaltzeko jardunaldiak egin dira urtero.</p>

3.6. GARAPEN IRAUNKORRA

Ezagutzaren bitartez, konturatzen gara etxe bera —Lurra— duen espeziea garena. Garai hauen eskakizuna da erakustea osotasuna, guztia-zatia harremana, haren dimentsio-aniztasuna, bai eta haren testuingurua ere. Eta garrantzitsua da, bereziki, arazoak testuinguruan jartzea. Lurreko herritar izaten ikasi behar dugu, eta geure gain hartu behar ditugu kontzientzia antropologikoa (aniztasunean bakarra onartzen duena), kontzientzia ekologikoa (biosfera berean bizi gara) eta hiritar kontzientzia (Lurreko biztanleekiko erantzukizuna eta elkartasuna). Labur esanda, ingurumen-etikaren garapena.

Gaur egun, hezkuntza-sistemari egindako gizarte-eskariak ez dira mugatzen ikasleek eskuratzerara ohitura eta teknika intelektualak edo hainbat jakintza-alorrei dagozkien ezagutzak, baizik eta oinarrizko xedetzat adierazten du pertsona bakoitzaren prestakuntza osoan laguntzea. Prestakuntza hori oinarrিতa dago hainbat gaitasun pertsonalen garapenean: ekiten den testuingurua ulertzea, ekintza-planak eta proiektu pertsonalak sortu eta administratzea, eta norberaren eskubideak, interesak, beharrak eta mugak defendatu eta finkatzea, eskola-mailan nahiz udalerrri-mailan. Hots, iraunkortasuna bilatzeko modu autonomo eta kritikoan pentsatzeko eta ekiteko aukera ematen duen oro, eguneroko eta benetako egoera batean.

Gero eta euskal gizarte iraunkorragoa, gizarteari dagokionez konprometituagoa, bidezkoagoa eta solidarioagoa eraikitzeke laguntza egokia emate aldera, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak eta Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak Eskolako Agenda 21 programa abiarazi zuten 2003. urtean. Era horretan, 1992an «Eskola ekologikoa» izeneko lehen programaren ildo beretik jarraitu dute.

» 88

Helburu horrekin, badira hainbat urte ikastetxeek hausnarketa- eta ekintza-prozesuak abiarazi dituztela, eskolako nahiz udalerriko baliabideen kudeaketari buruz, curriculum-egokitzapenari buruz, eta erabaki nahiz ekintza jakinetan parte hartzeari buruz, eskola-mailan zein herri-mailan. Horren bitartez, sare bati bidea eman nahi zaio, ardatz nagusizat Garapen Iraunkorrerako Hezkuntza izango duen ingurunea sortzeko. Ardatz horretan bilduko dira parte-hartze demokratikoaren printzipioak, gizakia-natura harremana ulertzeko beste modu bat, eta funtsezko balioak; besteak beste, elkarrizketa, tolerantzia, askatasuna, elkartasuna, zuzentasuna, justizia eta giza eskubideekiko errespetua.

Derrigorrezko hezkuntza ematen duten EAEko ikastetxeen erdiek gutxi gorabehera hartu dute jada Eskolako Agenda 21 programarekiko konpromisoa. Ikastetxe horietan, eta azterketa zehatza egin ondoren, hezkuntza-jarduera koherenteak diagnostikatzen ditu baliabide-kudeaketa eskasaren kausak, curriculumean presentzia handiagoa edo txikigoa duela edo parte-hartze maila. Era berean, ekintza-plan bat garatzen da, ikasleen protagonismoa azpimarratzen duena.

» Xede-helburua

Eskolako Agenda 21 abian jartzea, Derrigorrezko Hezkuntzako ikastetxeen % 80an, ikasleak eta hezkuntza-komunitatea garapen iraunkorraren alde trebatzeko. Ikastetxean eta udalerrian partaidetza aktiboa izatea bultzatuko da.

» Lehenasunez garatu beharreko ekintzak

EKINTZAK	ADIERAZLEAK
<p>1. Gertuko inguruneko ingurumena hobetzeko eta garapen iraunkorrean aurrera egiteko jarduera didaktiko berritzaileen erabilera bultzatzea.</p>	<p>1.1. Komunikazio-plana diseinatu eta ezarri da, hezkuntza-komunitatea garapen iraunkorrari, partaidetzari eta hezkuntza-hobekuntzari buruz sentsibilizatzeko.</p> <p>1.2. Curriculumaren edukitzat hartzen dira ikasleen, familien eta ikastetxearen kontsumo-ohiturak.</p> <p>1.3. Tokiko udaleko datuak eta informazioa erabiltzen dira jarduera didaktikoetan.</p>
<p>2. Curriculumean garapen iraunkorra eta hiritartasuna sartzen laguntzea.</p>	<p>2.2. Eduki egokituak eta eskola-komunitateak onartu dituen jarduera didaktiko berriak sartu dira urtero ikastetxearen programazioan.</p> <p>2.3. Eskolako Agenda 21 proiektuko jarduera didaktikoak alorren eta irakasgaien koordinazio-bileretan erabakitzen dira.</p>
<p>3. Ikaslea eta hezkuntza-komunitate osoa gertuko ingurunearen azterketako, ikastetxearen kudeaketa iraunkorreko eta udalari egindako hobekuntza-proposamenetako protagonista bihurtzea.</p>	<p>3.1. Ikastetxeetan, talde-laneko eta partaidetzako metodoak erabiltzen dira, ingurunearekin lotutako lanak egiteko.</p> <p>3.2. Ikastetxearen partaidetza bultzatzeko azpiegiturak ezarri dira. Azpiegitura horien barruan, Ingurune Batzordeak sortu dira.</p> <p>3.3. Sistema bat finkatu da, ikasleek onartutako erabakiak betetzen diren aztertzeke.</p>
<p>4. Ikastetxeei aholkularitza ematea, ingurunearen kudeaketa iraunkorra egin dezaten.</p>	<p>4.1. Ikastetxeek baliabideen kontsumoari buruzko diagnostikoa egin dute.</p> <p>4.2. Ikastetxeek hobetu beharreko jardunbideak identifikatu dituzte.</p> <p>4.3. Ikastetxeek baliabideen kudeaketa egokirako plana egin dute.</p> <p>4.4. Ikastetxeek planaren ezarpena ebaluatu dute, adierazleen bitartez.</p>
<p>5. Tokiko edo eskualdeko sareen osaketa eta udaletako erabaki-foroetako partaidetza bultzatzea.</p>	<p>5.1. Talde-laneko eremuko sareak sortu dira, ikastetxeetako ordezkariekin.</p> <p>5.2. Proposamenak adostu dira ikastetxeetako ikasle-ordezkariekin, eta udal-foroan ezagutarazi dira.</p>

